

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zergen eta Prezio Publikoen Ordenantzak behin betiko onartzea

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2016ko zergen eta prezio publikoen ordenantzen aldaketari behin-behineko onarpena ematen dio erabakiari; beraz, behin betiko onartzen dira, eta oso-osorik ematen dira argitara.

Ordenantza behin betiko onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzioarenak, ezartzen duenari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Murgian, 2015eko abenduaren 2an

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga Arautzen duen Zerga Ordenantza

I. Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia

3. artikulua

1. Landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko ondoko eskubideen titular izatea da zerga gaia:

a) Administrazioaren emakida baten titularitatea, ondasun higiezinaren gainekoa edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainekoa.

b) Azaleraren gaineko eskubide erreala.

c) Gozamen eskubide erreala.

d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko paragrafoan zehaztutako zerga gaia gauzatzeak berarekin ekarriko du, bertan xedatutako hurrenkerari jarraituz, ondasun higiezina ez atxikitzea ezarri diren gainerako modalitateei.

3. Zerga honi dagokionez, zerga ordenantza honen 4. artikuluan zerrendatutakoak izango dira landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezin.

4. Ondasun higiezin bera zenbait udalerritan badago, zerga honi dagokionez, udalerrri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

4. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako bakarrik, ondasun higiezina izaera bereko lurzattia edo lur-saila izango da, udalerrri batean egon eta jabe baten edo batzuen (pro indiviso) eremua bereizten duen lerro poligonal batek ixten duena, eta, horrelakorik dagoenean, eremu horretako eraikuntzak, jabea edozein dela ere, eta ondasun higiezinak dituen bestelako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere izango dira ondasun higiezin:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko erregimen bereziari lotuak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eksklusiboari eta iraunkorrari "pro indiviso" atxikiak badira. Katastroko balioespenaren ondorioetarako, arauz ezartzen den eran esleituko zaizkio elementu komunak ondasun higiezin bakoitzari.

b) Artikulu honen laugarren paragrafoan jasotakoak.

c) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazioko emakida baten espazio-eremua, salbu eta aurreko idatz zatietan xedatutako egoeretan.

2. Honako hauek dira hiriko ondasun higiezin:

a) Hiri lurzorua. Kontzeptu honetan ondokoak sartzen dira:

— Hirigintzako planeamenduaren arabera hiru lurzoru edo lurzoru urbanizatu direnak, eta horien balioak.

— Lurzoru urbanizagarriak eta lurralde antolamendurako eta hirigintzako tresnen arabera urbanizatutako diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, hain zuzen ere mugatutako esparruetan daudenak, eta mota honetako gainerako lurzoru guztiak hirigintzako trenza batek haien garpenerako arauak ezartzen dituenen.

— Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiriko eraikuntzak, honakoak, esaterako:

1º) Eraikinak, edozein direlarik, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokiak eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitzeke eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta hartzen duten lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza eta industria instalazioak, adibidez, dikeak, tankeak eta zamatze tokiak.

2º) Urbanizazio eta hobekuntza-obra, lur-berdinketak esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egingo diren obra. Hor sartzen dira azoka-barrutiak, aire zabaleko deposituak, presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne, bai eta kirola egiteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak ere.

3º) Ondoko idatz zatian landa izaerako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikuntzak.

Baina, izaera bereziko ondasun higiezinak biltzen dituzten lurzorua ez dira hiri lurrak izando.

3. Landa lurra da, hiri lur ez dena, ezta izaera bereziko ondasun higiezinaren zati ere, aurreko idatz xedatutakoaren arabera.

Zerga honen ondorioetarako, batez ere honako hauek izando dira landa ondasun higiezin:

a) Hiriko lurak ez direnak, aurreko paragrafoaren a) idatz zatian ezarritakoaren arabera.

b) Landako eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikin edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen labu-rrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi batez gordetzeko, jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin baitira.

4. Izaera berezia duten ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute, eta multzo horren zati ondorengo hauek dira: lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza lanak. Multzoak, berez, horiek guztiak bateratu egiten dituzenez, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, multzo hori ondasun higiezin bakartzat joa da katastroaren ondorioetarako.

Izaera bereziko ondasun higiezinak joko dira, aurreko paragrafoaren arabera ondorengo talde hauetan sartzen direnak:

– Energia elektrikoa eta gasa Portu, eta petrolioak fintzen dituztenak, eta central nuklearretarako direnak.

– Presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; ureztaketan erabiltzen direnak izan ezik.

– Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.

– Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

III. Salbuespenak

5. artikulua

Honako ondasunei ez zaie ezarriko zerga:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta toki erakundeen jabetzako ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza zerbitzuei zein presondegi zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.

b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.

c) Errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

d) Kuadrillen, udalen, udalerrien, anaiarten eta administrazio batzarren jabetzakoak, zerbitzu edo erabilera publikokoak badira. Goian esandakoa ez zaie aplikatuko lurak atxikita dauden ondasun edo zerbitzu publikoa administrazioaren emakida baten pean edo zeharkako beste kudeaketa mota baten pean daudenei, horren titularra irabazteko asmorik gabeko elkarteak ez bada, eta bere jarduerak aipatutako entitatearen batekin lankidetzan egiten baditu, hartako organo eskudunak udal interesekotzat jo duen jardueraren baterako.

Orobat, ez zaie ezarriko zerga hau baso eta gainerako ondasun higieziinei, horien gainean herri aprobetxamenduren bat badago, ez eta herri basoei ere.

e) Hazkunde geldoa duten espeziez betetako mendiak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak badira.

Salbuespen hau hazkunde geldoko zuhaitzei dagokie, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren espezie izendegia kontuan hartuta, horien aprobetxamendu nagusia egurra bada, eta espezie horietaz landatutako basoaren zatian bakarrik, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezieari berez dagokiona bada.

Era berean, aurreko paragrafoan jaso ez diren mendiak, korporazio, entitate eta partikularrek baso berritzeren bat egin duten zatiari dagokionez, bai eta baso administrazioak antolaketa proiektuen edo plan teknikoek menpe dauden zuhaitzietan lehengoratzeko ari diren zatiari dagokionez ere. Paragrafo honetan aurreikusitako albuespenak hamabost urteko iraupena izango du, horretarako eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatzen hasita.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoari buruz Estatuak eta Vatikanok sinatutako akordioan araututakoaren arabera.

g) Legeak onartutako elkarte konfesional ez katolikoek ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua aitutzen dituen lankidetzak hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren eta horren antzeko entitateen ondasunak; araz ezarriko da zein diren horiek.

i) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera salbuetsita dauden ondasun higiezinak, eta, elkarrekotasun baldintzetan, atzerriko gobernuen ondasun higiezinak, ordezkariak diplomatikotarako edo kontsulatu ordezkarietarako erabiltzen direnak, edo horien erakunde ofizialak.

j) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietako eraikinak, trenbideek ustiatzeko behar diren geltokiak, biltegiak edo beste edozein zerbitzu, baldin eta trenbidearen ustiapenerako ezinbestekoak badira.

Ondorioz, ez daude salbuetsita ostalaritzarako, ikuskizunetarako, merkataritzarako eta aisialdirako establezimenduak, ez eta enplegatuen etxebizitzak, zuzendaritzaren bulegoak edo industriako instalazioak ere.

k) Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua 2. paragrafoa a) idatz zatiaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Albuespen hori kultur ondasun kalifikatuei ezarriko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Salbuetsita egongo dira, era berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua 2. paragrafoa b) idatz zatiaren arabera monumentu izendapena duen higiezin multzo batean sartutakoak. Albuespen hori babes bereziko erregimenaren barruan sartzen diren higiezin kalifikatuei edo inbentariatuei besterik ez zaie aplikatuko, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzen arabera.

Orobat, salbuetsita daude Espainiako Historia Ondareko ondasun higiezinak, Espainiako Historia Ondarea eskainaren 25eko 16/1985 Legeak finkatu du.

l) Irakaskuntzarako erabiltzen diren ondasun higiezinak, baldin eta, osorik edo zati batean, hezkuntzako itunaren pean badaude; horretarako, itunaren menpeko irakaskuntzari eskaintzen dioten azalera hartuko da kontuan.

m) 650 eurotik beherako zerga oinarria duten hiri ondasun higiezinak. Halaber, landa ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasibo bakoitzak udalerrian dituen era horretako ondasun guztien zerga oinarria 1.220 euro baino gutxiago bada.

n) Irabazteko xederik gabeko erakundeek titularitatepekoak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (irabazteko xederik gabeko erakundeek zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriari buruzkoa) ezarritako moduan eta baldintzen pean. Ez zaie aplikatuko albuespena Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoari.

IV. Subjektu Pasiboa

6. artikulua

1. Zergadunak diren neurrian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. paragrafoan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak dira subjektu pasibo, baldin eta zerga honetako zerga gaia osatzen duen eskubidearen titularbadira.

Ezaugarri bereziak dituen higiezin beraren gaineko emakidadun batzuk badaude, zergadunaren ordezkoa kanon handiena ordaindu behar duena izango da.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, subjektu pasiboak ahalmena izango du jasan duen zerga karga beste bati jasanarazteko, eskubide komunekeo arauari jarraituz. Herri erabilera edo ondare ondasunak kontraprestazioz erabiltzen dituztenei jasanaraziko diete udalek zergaren kuota likido osoa, nahiz eta subjektu pasibo izan ez.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako emakidadunei jasanarazi ahalko die dagokien kuotaren saria, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

V. Zerga Oinarria

7. artikulua

1. Ondasun higiezinaren balioak osatuko du zerga oinarria.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren katastro balioa hartuko da balio gisa; katastro balioa ondasun higiezinaren merkatuko balioa erreferentziatzat hartuta finkatuko da, eta ezin izango da merkatuko balio hori gaingitu.

8. artikulua

1. Hiriko ondasun higiezinaren katastro balioa lurzorua eta eraikinen balioak osatuko du.

2. Lurzorua balioa kalkulatzeko, bertan eragina izango duten hirigintza baldintzak hartuko dira kontuan.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko eta artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzinasuna, eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore hartuko dira kontuan.

9. artikulua

1. Landa ondasunen katastro balioa luraren eta eraikuntzen balioak osatuko du.

2. Landa luraren balioa honela kalkulatu da: arautegian ezarritako korrituari luraren errenta erreal edo potentzialak kapita lizatuz, lurak produkzioarako, zenbait laboretarako edo aprobetxamendutarako duen gaitasunaren arabera, eta lur horien katastroko ezaugarri jarraiki.

Aipatutako errentak kalkulatzeko, nekazaritzarako ezaugarri homogeenak dituzten zona edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo partzuergoak aztertuz lortutako datuak hartuko dira kontuan.

Era berean, eta paragrafo honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira landa lurretan egindako hobekuntzak, zeinek haren balioaren zati bereizteza osatzen duten, eta, hala badagokio, produkzioan sartu aurretik igarotako urteak. Baso produkzioarako erabiltzen diren lurak izanez gero, noiz landatu den hartuko da kontuan, bai eta zuhaitzen egoera eta aprobetxamendu zikloa ere.

Nolanahi ere, aprobetxamendu handiagora bultzatuko duten ohiko produkzioen bitartekoen erabilera hartuko da kontuan, baina ez aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiapena edo udalerraren ezaugarriak direla-eta zaila gertatzen bada errenta errealak edo potentzialak ezagutzea, ondasunen katastroko balioa kalkulatu ahal izango da,

hobekuntza iraunkorrak eta landaketak barne, nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak kontuan izanik, bai eta eragina duten beste faktore batzuk ere.

3. Landa eraikinen balioa aurreko artikulua 3. paragrafoan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikinek hori ahalbidetzen duten neurrian.

10. artikulua

Aipatutako katastro balioak dagozkien Higiezinaren Katastroetan dauden datuetatik abiatuta finkatu dira. Kasuen arabera, katastro balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira, 13., 14., eta 15. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitakoaren arabera.

11. artikulua

Landa eta Hiri Ondasun Higiezinaren Katastroetan landa eta hiri izaerako ondasun higieziei buruzko hainbat datu eta deskripzio ageri dira, hala nola: azalera, kokapena, mugak, labore edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako alderdi fisiko, ekonomiko eta juridikoak, lurraldearen jabetza ezagutzera emango dutenak eta hura definituko dutenak, alderdi eta erabilera desberdinei dagokienez.

12. artikulua

1. Katastro balioak 9. eta 10. artikuluetan araututako balorazio irizpideen arabera finkatu dira.

2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugaketa egingo du alde aurretik, indarrean dauden hirigintzako xedapenei jarraituz. Dena dela, lurzoruan aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezkoa izango mugaketa berria.

3. Aurreko paragrafoan aipatutako lurzorua mugaketa lanak egin ostean, Arabako Foru Aldundiak balio txosten egokiak landuko ditu, eta bertan katastro balioak finkatzeko beharrezkoak diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak jasoko dira.

4. Hiri lurzorua mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarrito da erakusgai 15 egunez, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak egin ditzaten. Horretarako, Udalaren bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta lurralde horretan gehien irakurtzen diren egunkarietan iragarriko da.

5. Onartutako balio txostenak ALHAOn argitaratu dira, eta udalaren ediktuen bidez, txosten horietatik eratorritako katastro balioek ondorioa zein urtetan izan behar duten, haren aurreko urtean.

6. Txostenak argitaratu eta gero, txosten horietatik eratorritako katastro balioak subjektu pasibo bakoitzari edo hark baimendutakoari jakinarazi beharko zaizkio, ondorioa zein urtetan izan behar duten, haren aurreko urtea amaitu baino lehen.

7. Halaxe finkatutako katastro balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

13. artikulua

1. Katastro balioak Foru Aldundiak aldatuko ditu, bere kabuz edo udalak eskatuta, honako kasu honetan: hirigintza planeamenduak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastro balioen eta udalerrian edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko baloreen artean.

2. Aldaketa horrek, ezinbestean, balio txosten berriak lantzea eskatuko du, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baina hiri lurzorua mugaketa berria egin beharrik gabe.

3. Txostenak landu ostean, aurreko artikuluan araututako izapideak eta prozedurak jarraituko dira.

14. artikulua

Aipatutako katastro balioak Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren gaineko foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahalko dira.

VI. Zerga Kuota

15. artikulua

1. Zerga oinarriari karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota.

Kuota osoari legez ezarritako hobariak kenduta geratzen den zenbatekoa izango da kuota likidoa.

2. Karga tasa eranskinean agertzen dena izango da.

VII. Hobariak

16. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landatuta dauden edo basoa duten landa lurrek, baldin eta lurrok naturgune babestuetan badaude.

2. Urbanizatzea, eraikinak egitea eta higiezinaren sustapena helburutzat duten enpresen jardueraren ondoriozko ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik, eta haren ibilgetuen ondasunen artean azaltzen ez badira.

Hobari hori aplikatzeko epea obrak hasten diren zergaldiaren hurrengoan hasiko da, eta haiek amaitzen diren zergaldiaren hurrengoan amaituko da, baldin eta denbora horretan urbanizazio lanak zein eraikuntzakoak benetan egiten badira. Nolanahi ere, aipatzen den epea ezingo da hiru urte baino luzeagoa izan.

Lursailak urbanizatzeko obregatik aipatutako hobaria jaso duen interesdunak, lursail horietako higiezinaren sustapenari ekiten badio, aplikatzeko epea bost zergaldikoa izango da.

Hobaria interesdunek eskatu beharko dute. Eskaera horrekin batera ondoko agirial aurkeztu beharko dituzte:

- Urbanizatzeko edo eraikitzeke lanak hasteko aurreikusitako egunari buruzko aitortpena.
- Enpresak urbanizatzen, eraikitzen eta higiezinak sustatzen diharduela egiaztatzea. Horretarako enpresak bere estatutuak aurkeztuko ditu eta behar bezala inskribatuta egongo da Merkataritza Erregistroan.
- Hobaria jasotzen duen etxearen jabe dela egiaztatzea. Horretarako jabetza eskrituraren, jabetza erregistroko egiaztagiraren edo katastroko altaren kopia konpultsatua aurkeztuko da.
- Hobaria jasotzen duen higiezina ez dela ibilgetuaren zati egiaztatzea. Horretarako, elkar-tearen administratzailearen ziurtagiria edo Sozietateen gaineko Zerga dela-eta Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari aurkeztutako balantzearen fotokopia konpultsatua aurkeztuko da.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiriaren edo altaren edo zerga hori ordaintzeko beharrik ez izatea adierazten duen ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.

3. Babes ofizialeko etxebizitzek eta Autonomia Erkidegoko Araudiak baliokidetzat hartzen dituenek (sozialak) zerga kuota osoaren ehuneko 50eko hobaria izango dute behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak hala eskaturik emango da, eta hiru zergaldiak bukatu aurreko edozein unetan eskatu beharko da; hala eginez gero, eskaria egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatiben eta komunitateko ustiapenetakoen landa ondasunek kuotan hobaria izateko eskubidea izango dute, ekainaren 9ko Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko 16/1997 Foru Arauan ezarritakoa betez.

5. Familia ugarietako hobariak.

Familia ugarien ohiko bizilekua diren etxebizitzek Zergako kuotaren ehuneko 90eko eta ehuneko 50eko hobaria izango dute, hurrenez hurren, maila bereziko familia ugariak (bost seme-alaba edo gehiagokoak eta lau seme-alaba dituztenak, horietatik hiru haurgintza, adopzio edo harrera iraunkor edo adopzioaren aurreko harrera anizkoitzetik badatoz) edo maila orokorrekoak (gainerako familia unitateak) diren, baldin eta jarraian zehazten diren errenta mailak ez badira gainditzen eta haiek emateko arrazoi izan ziren baldintzak mantentzen badituzte.

Familia ugariaren gehieneko errenta eskuragarriak (zerga-oinarria joko da errentatzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 71. artikuluan aipatzen diren pentsio konpentsatzaileen eta urteko mantenuen kenketa egin ondoren) ezingo ditu ondorengo zenbatekoak gainditu:

KIDE KOPURUA	GEHIENEZKO ERRENTA (EUROTAN)
3	31.400
4	33.250
5	35.000
6	36.750
7	38.500
8	40.250
9	41.900
10	43.550
11	45.200
12	46.850

Atal honetan adierazten den hobaria aplikatzen den ekitaldiaren aurreko azkenaurreko urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan.

Aurrekoaz gain, gehieneko errenta maila gainditzen duten familia ugariak, zergan kuotan ehuneko 25 eta 10eko hobaria izango dute, hurrenez hurren, kontuan izanda zein kategoriatako familia ugariak diren; hau da, kategoria berezikoak diren (bost seme-alaba edo gehiago, edo lau seme-alaba, eta horietako hiru erditze, adopzio edo betirako hartze edo adoptatu aurreko hartze berekoak) ala kategoria orokorrekoak diren (gainerako familia unitateak).

Familia unitateko kideen kopuruan, gurasoak edo tutoreak eta familia ugariaren izaera jasotzeko kontuan hartzen diren seme-alabak sartzen dira. Familia ugariko kideek PFEZn banakako aitortpena egitea aukeratzen baldin badute, zerga oinarria familiako kide desberdinen banakako oinarriak aterako da.

Hobari hau eta babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritakoak bateragarriak izango dira, bi zerga anura horien batura ez bada kuotaren ehuneko 100 baino gehiago.

Hobari hau eskuratzeko beharrezko baldintza izango da, zergaren sortzapen garaian bete beharrekoa, familia ugariaren tituluan jasotzen diren kide guztiak hobari eskaeraren xedea den etxebizitzako bizilekuan erroldatuta egotea eta beste edozein udalerritan etxebizitzarik ez edukitzea.

Zergare subjektu pasiboek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Hobariaren eskabidea, bertan ondasun higiezin zehaztuz.
- Ondasun higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Indarrean dagoen familia ugariaren titulua, organo eskudunak emana.
- Familia erroldatze-ziurtagiria.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitopenen fotokopia (subjektu pasiboa, aipatutako zergaren araudiari jarraituz, aitopena aurkeztera beharturik ez dagoen egoeretan izan ezik).
- Beste etxebizitza baten jabe ez direlako zinpeko aitopena.

Hobaria eskatzeko epea hobari eskaeraren xedea den ekitaldiko uztailaren 31ra artekoa izango da.

6. Hobari subjektiboak.

Zerga honen subjektu pasiboek, beraien ohiko bizilekua diren etxebizitzan jabeak badira, Zergako kuotan hobaria izango dute ondoko zenbakietan adierazten diren baldintzetan, bertan ezarritakoaren arabera.

Hobaria Zergako kuota osoaren gainean aplikatuko da, familia unitatearen diru sarreraren arabera, eta idatz zati honetako 4. puntuan jasotzen den taulari jarraituz.

Hobariak baldintza hauek betetzen dituzten familia unitateei bakarrik aplikatuko zaizkie: etxebizitza bakar baten jabeak izatea eta, gainera, hori beraien ohiko bizilekua izatea, zerga legeriak definitzen duen moduan. Familia unitatea osatzen duten kideek titular moduan dauzkaten ondasun higiezin guztien katastro balioak ezin izango du 420.000 euroko kopurua gainditu.

Hobariaren zenbatekoa ondoko taula honetan adierazten dena izango da:

Hobariaren zenbatekoa

	T-0	T-1	T-2	T-3
Familia-unitatearen kide-kopurua	< 14.000 euro	14.000 - 16.800 euro	16.801 - 19.800 euro	19.801 - 21.000 euro
1 edo 2	ehuneko 75	ehuneko 65	ehuneko 50	ehuneko 30
3	ehuneko 80	ehuneko 75	ehuneko 60	ehuneko 40
4	ehuneko 95	ehuneko 85	ehuneko 75	ehuneko 50

Taula honetan aipatzen diren errenta tarteak eta ehunekoak familia unitateko kideen errantak integratuz aplikatuko dira. Horretarako,

1. Errentatzat hau hartuko da: zerga oinarria (zerga oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga oinarria) ken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 71. artikuluan aipatutako konpentsazio pentsioen eta mantenurako urteroko kopuruaren murrizketa. Horretarako, idatz zati honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urtearen aurreko urtearen aurrekoan lortutako errentak hartuko dira aintzat.

Aurreko paragrafoan aipatzen den errenta zehaztearren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako aitopena hartuko da kontuan eta, aipatutako aitopena aurkeztera beharturik ez egotekotan, errenta hori egiaztatzeko bide ematen duen edozein argibide.

2. Familia unitatetzat urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 100. artikuluan definitutakoa hartuko da.

Zergaren subjektu pasiboek aipatu den hobariaren emakida eskatu beharko dute eskuratuko den imprimakia aurkeztuz, familia unitatearen errenta maila egiaztatzen duten agiriak erantsita. Horrek ez du eragozten Udalak, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean, egiaztatze horretan lagundu ahal izatea, ahal den neurrian hobari honen bideraketa erraztuz. Era berean, familia

unitateko kide guztiek titular moduan dauzkaten ondasun higiezinak 420.000 euroko kopurua gainditzen ez duelako zinpeko aitortzea erantsi beharko da.

Hobari hau bateraezina izango da artikulua honetan arautzen diren gainerako hobariekin.

Hobari honen aplikazioa, betiere, Ondasun Higiezinak gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan hari buruz egiten den ondoriozko lege aurreikuspena moldatuko da.

Hobaria eskatzeko epea hobari eskaeraren xedea den akitaldiko uztailaren 31ra artekoa izango da.

7. Zergaren kuota osoaren ehuneko 20ko hobaria finkatu da abenduaren 30eko Eusko Jaurlaritzaren 316/2002 Dekretua arautzen duen hutsik dagoen etxebizitzaren programaren eta udal edo foru etxebizitzaren plan eta programen esparruan lagatzen diren ondasun higiezinak kasuan.

Hobaria eskatzeko epea hobari eskaeraren xedea den ekitaldiko uztailaren 31ra artekoa izango da.

VIII. Sortzapena

17. artikulua

1. Zerga urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean.

2. Zergapeko ondasunetan sortutako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoek, aldaketa horiek gertatu ondorengo zergaldian izando dituzte ondorioak. Dagozkion administrazio egintzak jakinarazteak ez ditu ondorio horiek baldintzatuko.

18. artikulua

1. Edozein arrazoi dela-eta zerga gai diren eskubideen jabetzan aldaketaren bat gertatu bada, eskubide horien jabe diren ondasun higiezinengatik zerga kuota guztia ordaindu beharko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera. Horiek horrela, notarioek argibideak eskatuko dituzte eta dokumentuetan agertzen direnei berariaz ohartaraziko diete zein epe duten, notarioek eurek baimendutako agirien bidez, eskualdatzen den higiezinari lotutako Ondasun Higiezinak gaineko Zergari dagozkion zorrak ordaintzeko eta zerga kuotari lotutako ondasunei buruzko aitortzea aurkezteko. Halaber, ohartaraziko diete zer erantzukizun duten aitortzea aurkezten ez badute, aitortzen hori epea kanpo edo osatu gabe edo datu zehatzik gabe aurkezten badute, edo aitortzen faltsuak aurkezten badituzte.

2. Zerga zorraren ordainketaren erantzule solidario izango dira, nor bere partearen arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan 3. paragrafoan xedatutako erakundeetako titularkideak eta partaideak, baldin eta higiezinak katastroan hala agertzen badira inskribatuta. Katastroan, nork zer parte duen agertzen ez bada, neurri berean izango dira erantzule denak.

IX. Zergaren Kudeaketa

19. artikulua

Zerga urtero egingo den erroldaren bidez kudeatuko da, non ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta katastro balioak (landa eta hiri ondasunak bereiz) barne hartzen dituen erroldak jasoko baitira. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.

20. artikulua

1. Subjektu pasiboek zerga honi lotutako ondasunei dagozkien altak eta aldaketak Zuiako Udalari aitortu beharko dizkiote. Hona hemen aurkeztu beharreko aitortpenak:

a) Eraikuntza berrien kasuan, egoki diren alta-emate aitorpenak egin beharko dituzte, obra emaitzen denetik hilabeteko apean edo, hala badagokio, eraiki den lurrari baja eman zaionetik. Bestela, ofizioz emango zaio alta.

b) Zerga honi lotutako ondasunak eskualdatzen badira, eskuratzailleak alta aitorpena aurkeztu beharko du eskualdaketa eragin duen dokumentuarekin batera; eskualdatzailleak, aldiz, baja aitorpena aurkeztu beharko du, honakoak adieraziz: eskuratzaillearen izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokapena, eskualdaketa data eta aitorpen hori zer dela-eta egiten den.

Eskualdaketa "mortis causa" izeneko arrazoiak eragin badu, dagokion epea Oinordekotzaren gaineko Zerga likidatzen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta oinordekoak bi aitorpenak egin beharko ditu, bajarena eta altarena.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoak direla-eta sor daitezkeen aldaketa guztiak.

Aitorpenak Udalak ezartzen duen ereduan aurkeztu beharko dira, agiri hauekin batera:

- Eskualdatzaile eta eskuratzaillearen NAN/IFZren zenbakia.
- Aldaketa eragin duen agiriaren kopia.
- Eskualdatzen diren higiezinaren katastroko erreferentziaren ziurtagiria.

Idatz zati honetan zerrendatutako aitorpenak ez aurkeztea edo epe barruan ez egitea zerga-haustea izango da.

21. artikulua

Honako hauek administrazio egintzak dira eta zerga eroldaren aldaketa ekarriko dute: higiezinaren katastroan datuak sartzea, ateratzea edo aldatzea (katastroa berrikustetik, eta katastro balioak ezartzetik, berrikustetik eta aldatzetik sorturikoak), ikuskatzailetzak burututako jarduerak, eta altak eta komunikazioak formalizatzea. Ildo beretik, eroldan higiezinaren katastroetan dauden datuekin lotutako aldaketarik egin behar izanez gero, higiezinaren katastroetan alde zuzenetik aldaketa bera egin beharko da nahitaez.

22. artikulua

1. Udalak du zerga ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, araututako aldiaren zein premiamenduko bidean, baldin eta zergapeko ondasunak udal horren menpeko udalerrian badaude, baina hori ez da eragozpen izango 3. zenbakian ezarritakoa betetzeko.

2. Zehazki, udalari dagokio alta emateen eta baja emateen izapideak egitea eta likidatzea, eroldak jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzuaren mugaketak eta balioztapen txostenak egin eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga eroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspina, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio.

Udalak katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko dio foru aldundiari.

Era berean, foru aldundiari dagokio ordainagiriak egitea. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1998 Foru Aruaren 15. artikuluan 7. eta 9. paragrafoetan aipatzen diren hobari pertsonalak udalek zehazten badituzte, ordainagiriak ere udalek berek egingo dituzte. Bestalde, foru aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskaritza egitea.

Ordenantza honen 5. artikuluan xedatutako salbuespenak emateko edo ukatzeko, ezinbestekoa izango da foru aldundiaren txosten teknikoa izatea, eta, ondoren, foru aldundiari eman beharko zaio hartutako erabakiaren berri.

23. artikulua

Balio ponentziak onartzen dituzten egintzen eta katastro balioen aurkako errekursoak eta erreklamazioek, zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229-246 artikuluetan xedatutakoari jarraitu beharko diote. Arabako Foru Aldundiak izango du eskumena berraztertzeko errekursoa ebazteko. Aipatutako errekurso eta erreklamazioak aurkezteak ez du etengo egintzak betearazi beharra.

24. artikulua

1. Arabako Foru Aldundiak egingo du errolda, eta udalari bidaliko dio.
2. Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 egunez, zergadunek azter dezaten eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten, halakorik nahi izanez gero.
3. Udalak Zuiako Kontzejuetako presidenteei jakinaraziko diete, gutxienez, bi egun lehenago, noiz jarrito diren jendaurrean, Kontzejuak era beren bizilagunei jakinarazi diezaieten ohiko bideen bidez.

25. artikulua

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, foru aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onar dezan.
2. Egiaztagiria onartu eta gero, foru aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta udalari bidaliko dizkio, azken horrek diru bilketari ekin diezaion.

Xedapen Gehigarria

Ordenantza honetako 5.f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatu Espainiarrak eta Vatikanok egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, hona zerga ordaindu beharrik izango ez duten ondasunak:

- a) Gurtzeko erabilitako tenplu eta kaperak, bai eta ekintza pastoralerako erabilitako lokalak edo horiei atxikitako eraikinak ere.
- b) Gotzain, kalonje eta arimen ardura duten apaizen egoitzak.
- c) Bulego, kuria diozesiarra eta parrokia bulegotarako erabilitako lokalak.
- d) Klero diozesiarraren eta erlijiosoaren prestakuntzarako erabilitako apaiztegiak; elizaren unibertsitateak barne, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.
- e) Beren helburu nagusia ordenetako, erlijio kongregazioetako eta bizitza sagaratuko institutuetako etxe edo komentu izatea duten eraikinak.

Aldi Baterako Xedapenak

Lehenengoa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen 42/89 Foru Arauaren xedapen gehigarrietan jasotako arauak aplikagarri izando dira udalerrian, dagozkion gaietarako.

Bigarrena.

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jartzean onartutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergei buruzko zerga hobariak (bertan daude jasota horietarako kasuak) mantendu egingo dira eskatu beharrik gabe, baldin eta erregutu beharrek ez badira. Aipatutako zergan onartuta dauden zerga hobariei bukatu arte eutsiko zaie, nahiz eta zerga ordenantza honetan jaso ez. Horretatik kanpo geratuko da Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 4. artikulua k) idatz zatian xedatutakoa, baldin eta 12/2003 Foru Arauaren aurreko idazketahartzen bada aintzat, zeren eta azken hori indarrean sartzean aurrekoa indargabetu egin baitzen.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2013ko urriaren 24an onartu zen behin betiko, 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza**Eranskina**

TARIFA	ARGA TASA (EHUNEKO)
Hiri ondasun higiezinak	0,26
Landa ondasun higiezinak	0,31
Berezien Ondasun Higiezinak	1,30

Ordaintzeko Aldia: ekainaren 1etik uztailaren 31ra arte.

Zatikako ordaintza: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga bi epetan ordaintzeko aukera izango dute zergadunek: 1. ordaintza, uztailaren 31n, eta 2. ordaintza, azaroaren 30ean. Ordaintza batetik bira aldatzeko eskabidea aurkezteko azken eguna apirilaren 30a izango da.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala –eranskin honetan jasotzen den tarifa eta bilketarako aldia horren parte dira-, 2013ko urriaren 24an onetsi zen.

Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza

I. Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga zerga erreala da, enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsagatik karga bat ezartzen duena.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia

3. artikulua

Udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzeak osatuko du zerga gaia, jarduera horiek lokal zehatz batean egin edo ez egin, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez egon.

Zerga honen ondorioetarako, honakoak izango dira enpresa jarduerak: abeltzaintza (jarduera independentea denean), meatze, industria, merkataritza eta zerbitzuak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiei ez zaie ezarri behar zergarik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, segidako kasuetan sartuta dagoen abere multzoa abeltzaintza independentetzat joko da:

a) Abeltzainak nekazaritzarako edo baso ustiapenerako erabiltzen ez dituen lurretan batez ere bazkatzen duena.

- b) Landa finketatik kanpoko ukuiluetan dagoena.
- c) Transhumantzian dabilena.
- d) Batez ere, hazleku duen finkaz kanpoko pentsuez elikatzen dena.

4. artikulua

1. Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoz.

2. Karga ezarriko zaion jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

5. artikulua

Karga ezarriko zaion jarduera egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

6. artikulua

Honako jarduera hauek ez dute zerga gaia osatuko:

1. Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.
2. Enpresen aktibo finkean sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek besterendu baino bi urte lehenago gutxienez ibilgetu modura agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek epe berean erabili izan baditu.
3. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.
4. Esklusiboki establezimenduaren dekorazio eta apainketarako gaien erakusketa. Bezeroei opariak egiteko gaien erakusketa, ordea, zergari lotuko zaio.
5. Txikizkako salmentan, egintza bakarra burutzea eta eragiketa bakana izatea.

III. Salbuespenak eta Hobariak

7. artikulua

I. Salbuespenak:

1. Honakoak salbuetsiko dira zerga honetatik:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Jarduera zerga honen lehenengo bi zergaldietan hasten duten subjektu pasiboek.

Ondorio horietarako, ez da joko jarduera berritza lehenago beste titularitate batekin gauzatu den jarduera.

1) Besteak beste, jarduera baten adarrak batzean, zatitzean edo gehitzean ulertuko da egoera hori gertatu dela.

2) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritik eratutako sozietate talde bateko kidea bada; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezein enpresak egin ez duena.

3) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

c) Eragiketetan 2.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboek.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu finko baten bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 2.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena bada.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izando da subjektu pasiboek ez izatea ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik (zuzenean zein zeharka) letra honetan jasotzen den eragiketen bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresetan. Salbuespen izando dira uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren (Sozietateen gaineko Zergarena) 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, zehazten diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, edo enpresak sustatzeko sozietateak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorioa bada.

Letra honetan zehaztutako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, honako arauak hartuko dira kontuan:

1º. Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak 2. artikulua 7. paragrafoan zehaztutakoarekin bat etorritik zehaztuko da eragiketen bolumena.

2º. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboentzat, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunentzat, eragiketen bolumena izango da zerga horien aitortpenak aurkezteko epea zerga sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. paragrafoan zehazten diren sozietate zibil eta erakundeentzat eragiketen bolumena zerga sortzen den urtearen azkenurrekoari dagokiona izango da. Zergaldi horrek urte naturala baino gutxiago irauten badu, eragiketen bolumena urte osoari dagokiona izango da.

3º. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko, hark gauzatutako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Merkataritza Kodearen 42. artikulua jarraikiz, erakundea sozietate taldearen zati bada, lehen adierazitako kopuruak talde horri dagozkion erakunde multzoarenak izango dira.

4º Ez-egoiliarren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eragiketakoak.

e) Ikerketa erakunde publikoak; irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), estatuaren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren eta toki erakundeen funtsez ordaintzen badira osorik, edo ongintzazkotzat edo erabilera publikokotzat jotzen badira; era berean, irabazteko xederik ez duten irakaskuntzarako zentroak (maila guztietan), hezkuntza itunaren erregimenpean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahaiako artikulua eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespen gisa, zentroan bertan saldu irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko bada, edo zentroa mantentzeko.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioek, irabazteko asmorik gabek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko burutzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorriaren eta arautegian zehaztutako diren antzeko erakundeen ondasunak.

h) Salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboek, nazioartekoitunean edo hitzarmenean jarraikiz.

i) 4. Irabazteko asmorik gabeko erakundeak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoa) ezarritako modu eta baldintzetan.

2. Aurreko paragrafoko a), d), g) eta h) idatz zatietan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute zergaren erroldarako alta aitortpena aurkezteko beharrik.

3. Aurreko 1. paragrafoko c) idatz zatian adierazitako salbuespena aplikatzean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du zein kasutan jakinarazi beharko zaion idatziz Arabako Foru Aldundiari letra horretako baldintzak betetzen diren ala ez.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu jakinarazpen horren edukia, epea eta aurkezteko modua, baita zein kasutan aurkeztu beharko diren bide telemáticos ere.

Aurreko 1. paragrafoko c) idatz zatian zehaztutako salbuespenari eragin diezaioketen aldakuntzez ari garela, zerga ordenantza honetako 11. artikulua 2. paragrafoko hirugarren puntuan zehaztutakoari jarraituko zaio.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoko e) eta f) idatz zatietan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

II. Hobariak: ehuneko 50eko hobaria ezarriko zaie behin betiko kontratupeko langileen kopurua ehuneko 20 gehitzen duten enpresei.

IV. Subjektu Pasiboa

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. idatz zatiak aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzen duten jardueretako edozein egiten badute.

V. Zerga Kuota

9. artikulua

Indarrean dauden zergako tarifak (dagokion foru arauaren bidez onartuak) aplikatuta lortzen dena izango da tributu kuota, ondokoak kontuan hartuta: udalak adostutako eta ordenantza honen eranskinean araututako koefizienteak, indizea eta hobariak.

VI. Zergaldia eta Sortzapena

10. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da zergaldia. Horrek ez du eragotziko artikulua honen 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga, eta kuotak ezin izango dira murriztu, salbu eta alta aitortpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egun kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da eta alta ematen den egun berean sortuko da.

3. Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia urtarrilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga, eta kuota urtarrilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hileen arabera proportzionalki kalkulatu da.

Aurreko lerroaldean aipatutako hilen kopurua kalkulatzeko, baja aitortpena aurkezten den hil osoa balitz bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasten den egunetik baja aitopena egiten den eguna arte, 12 hilabete igaro ez badira. Horrelakoetan, baja ematearen eguna jarduera hasiz geroztik baja aitopena aurkezten den urteko abenduaren 31ra pasako da.

Alta eta baja egunak urte natural berean gertatzen badira ez da inola ere diru-sarrerarik itzuliko.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuotak saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, saio bakoitzeko sortuko da sortzapena, eta egoki diren aitopenak aurkeztu beharko dira arauk ezarritakoari jarraiki.

VII. Kudeaketa

11. artikulua

1. Errolda bidez kudeatuko da zerga. Aipatutako errolda artero egingo da, eta bertan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga kuotak eta foru errenergua, halakorik badagokio, baren hartuko dituzten erroldak sartuko dira. Errolda jendearen eskura egongo da.

2. Subjektu pasiboek dagozkien alta aitorten guztiak aurkeztu behar dituzte eta, zerga ordenantza honen 11.1 artikuluari jarraikiz, erroldan sartzeko beharrezko diren elementu guztiak adierazi beharko dituzte, arauz ezartzen den epean. Ondoren eskumena duen administrazioak dagokion likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, horrek dagokion ordainketa egin dezan. Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jarduerak gauzatzean sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte, arau bidez ezarriko diren epe eta terminoetan. Horiek horrela, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezin katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honen 7. artikuluen 1. paragrafoko c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek beren eragiketen bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa-bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga-ordenantza honetako 7. artikuluen 1. paragrafoko c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu komunikazio horiek aurkeztu behar diren kasuak, haien edukia, epea eta aurkezteko modua, baita telematika bidez aurkeztu behar diren kasuak ere.

3. Erroldetako datuak sartu, kendu edo aldatzea, zerga ikuskatze jarduketan edo alta emate eta komunikazioen formalizazioaren ondorio direnak, administrazio egintzat joko dira eta erroldaren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan erroldetako datuekin lotuta dagoen edozein aldaketa egiteko, aldezturik erroldako datuak aldatu beharko dira ezinbestez.

4. Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izando da, arauen bidez ezarriko diren terminoetan.

12. artikulua

1. Udal honek du kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa egiteko ahalmena, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2. Udalaren aginpidea izango da, halaber, errolda jendurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik foru aldundiak txosten teknikoak egin beharko du eta, ondoren, ebazpenaren berri ere eman beharko du.

13. artikulua

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurtsio eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229. artikulutik 246.era bitartekotan xedatutakoari jarraiki arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertze errekurtsioa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazi beharra eragotziko.

14. artikulua

1. Udal bakoitzari dagozkion erroldak foru aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2. Foru aldundiak landutako errolda jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, zergadunek azter dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten, halakorik nahi izanez gero.

15. artikulua

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onar dezan.

Onartu eta gero, Foru Aldundiak ordainagiriak egingo ditu eta Udal bakoitzari bildaliko dizkio udalek bilketa egin dezaten.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2013ko urriaren 24an onartu zen behin betiko, 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

Eranskina

Lehenengo araua.

Zerga kuota (udalaren gutxienekoa) ondokoa izango da: Zerga egitatean satutako jardueretan, dagokion foru arautegiaren bidez (Foru Dekretua) onetsitako zergaren tarifak aplikatzearen ondoriozkoa.

Bigarren araua.

Eragiketen bolumenaren arabera haztapen koefizientea.

Zergaren tarifetan zehaztutako gutxienezko udal kuotak 1,25 haztapen koefizientearekin igoko dira.

Hirugarren araua.

Kuotetan hainbat indize aplikatuko dira lokalaren egoera fisikoaren arabera. Honako kale kategoria hau ezarri da:

- Domingo de Sautu kalea: 2.
- A-68 Autopistaren Zerbitzu Eremua: 2.
- Gainontzeko kaleak: 1,25.

Laugarren araua

Ordaintzeko aldia: ekainaren 1etik uztailaren 31ra arte.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza**I. Xedapen Orokorrak****1. artikulua**

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia**3. artikulua**

Honakoek osatuko dute zerga-gaia: obra edo hirigintza lizentzia lortu beharra duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, lizentzia hori lortu ala ez, baldin eta udal honi badagokio aipatu lizentzia ematea.

4. artikulua

Adibide gisa, hona hemen zerga-gai den zenbait jarduera:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dagoen edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
3. Lehendik dagoen edozein eraikinen eta instalazioren egiturari eragiten dioten aldatze edo eraberritze obrak.
4. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioren kanpoaldearen itxura aldatzeko obrak.
5. Eraikinen barruko antolaketa aldatuko duten obrak, ematen zaion erabilera edozein dela ere.
6. Behin-behineko obrak, Lurzoruaren Legearen testu bateratuaren 58. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituenak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
8. Lur mugimenduak, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, esaterako, baldin eta egintza horiek urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimendu batean egikaritu beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta ez badaude.
9. Eraikuntzen eraispena, aurri zorian deklaraturakoak izan ezik.
10. Aparkalekutarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.
11. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda kartelak ezartzea.
12. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obren edo hirigintza lizentzia lortu beharra dutenak.

5. artikulua

Egiten diren eraikinak, obrak eta instalazioak udalaren ondasun higiezinetan egiten badira, ez dute zerga hori ordaindu beharrik izango, udala bera bada obren jabea.

III. Subjektu Pasiboak

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoan jasotako pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak, baldin eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe badira; berdin dio obra egiten den ondasun higiezinaren jabe diren edo ez.

Aurreko paragrafoetan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen duena.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeztu subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatu ahalko dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

IV. Salbuespenak eta Hobariak

7. artikulua

Honakoek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie ezarriko zergarik, baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uren saneamenduak egiteko badira, nahiz eta organismo autonomoek kudeatu, eta berdin inbertsio berriko obrak direnean zein mantentzeko direnean.

b) Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 4. artikulua 1. paragrafoan k) letraz adierazitako salbuespena aplikatu behar zaie ondasunetan (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua 2. paragrafoan a) letraz adierazitako monumentuak diren ondasunak) egiten den edozein eraikuntza, instalazio edo obra.

d) Euri urak jasoko dituzten eta ureztatzeko diren zisternen edo ur biltegien instalazioa.

e) Eliza Katolikoa, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatuak eta Vatikanok sinatutako akordioan araututakoaren arabera, betiere 2001eko ekainaren 5eko Aginduekin bat etorriz. Agindu horren bidez, eraikuntzen, instalazioen eta obraren gaineko zerga, Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren arteko Akordioaren IV. artikulua 1. ataleko b) hizkian sartzea argitu zen.

2. Hobariak:

– Ehuneko 65eko hobaria ezartzen da etxebizitzetan sarbide- eta bizigarritasun-baldintzak egokitzeko helburua duten obretarako, baldin eta onuraduna, higiezinaren titularra edo bertan erroldatuta dagoena 65 urtetik gorakoa bada eta urtean asko jota 18.000 euroko errenta badu, eta ehuneko 90eko hobaria, gehieneko errenta urtean 8.000 eurokoa (familia-unitatearen diru-sarrerak) denean.

– Era berean, ehuneko 65eko hobaria ezartzen da etxebizitzetan sarbide- eta bizigarritasun-baldintzak egokitzeko helburua duten obretarako, baldin eta onuraduna, higiezinaren titularra edo bertan erroldatuta dagoena ehuneko 33ko edo hortik gorako ezgaitasun-koefiziente egiaztatua badu eta, gainera, mugitzeko zailtasunen baremoan 7 puntu edo gehiago baditu.

– Eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak zein biomasako galdaren edo energia berriztagarriko bestelako instalazioen ingurukoak ezartzen dituzten

eraikuntza, instalazio eta obretan, ehuneko 50eko hobaria ezartzen da energia-iturriaren zenbatekoaren gaineko EIOZen. Hobari hau ezarri ahal izateko, beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko duten kolektoreak egongo dira. Hobari hori, bakar-bakarrik, eguzki-energiaren aprobetxamendu-sistemetara zuzendutako zenbatekoen gainean ezarriko da, baldin eta inbertsio hori indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoa ez bada.

– Ehuneko 50eko hobaria ezartzen da, interes berezikotzat edo udal-onuratzat hartutako eraikuntza, instalazio edo obretarako, betiere halakotzat hartzea justifikatzeko moduko zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikorik zein enplegua sustatzekorik izanez gero, baldin eta udal-batzorde eskudunak kasuan-kasuan deklaritzen badu.

V. Zerga Oinarria

8. artikulua

1. Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta egiazkoek osatuko dute oinarri zergagarria, eta, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua jotzen da benetako kostutzat.

Honako hauek ez dute osatzen zerga oinarria: Balio Erantsiaren gaineko Zergak eta erregimen berezien berezko beste antzeko zergek; eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasek, prezio publikoek eta ondare prestazioek, publikoak eta tokian tokikoak direnean, ez eta profesionalen soldatek, kontratistaren enpresa etekinak eta gauzatze materialaren kostua zorrotz osatzen ez duen beste edozein kontzeptuk ere.

VI. Zerga Kuota

9. artikulua

Zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota.

VII. Sortzapena

10. artikulua

Eraikuntza, instalazioa eta obra hasten den momentuan sortuko da zerga, dagokion obraren baimena artean lortu ez bada ere.

VIII. Kudeaketa

11. artikulua

Aginduzko lizentzia lortzen denean, behin-behineko likidazioa egingo da. Zerga-oinarria zehazteko, interesdunek aurkeztutako aurrekontua erabiliko da, dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsia; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zein den zerga oinarria, proiekturako kalkulatzeko den kostuaren arabera.

12. artikulua

Behin lizentzia emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierakoari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

13. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazioa edo obrak eta horien kostu erreala kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatu. Horren arabera egingo du udalak behin betiko likidazioa, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko dio, edo, hala behar denean, itzuli egingo dio.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo behin-behinekoa jaso eta hurrengo hilabetean, horren deklarazioa aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, ahal denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta hortik sortutako beste eskubide batzuk barne.

14. artikulua

Zergaren likidaziorako, ondorio berak izango dituzte administrazioaren isiltasun positiboa aplikatuz emandako baimenek zein esanbidez emandako baimenek.

15. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

16. artikulua

Lizentzia baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa bertan behera uzten badu, eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak itzuli egingo du behin-behineko likidazioa, edo guztiz baliogabetu.

17. artikulua

Lizentzia bat iraungitakoan, udalak itzuli egingo du likidazioa, edo baliogabetu, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatzen badu eta udalak baimena ematen badio.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2015eko urriaren 8an onartu zen behin betiko, 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza

Eranskina

Tarifa

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA	KARGA TASA
Obra handiak (proiektu teknikoa eskatzen dute)	
Zaharberrikuntza-lanak ez direnak:	ehuneko 4
Zaharberrikuntza-lanak:	ehuneko 3
Obra txikiak (proiektu teknikoa ez eskatzen dute)	ehuneko 3

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala –eranskin honetan jasotzen den tarifa eta bilketarako aldia horren parte dira-, 2013ko urriaren 24an onetsi zen.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza

I. Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga hau

arautzen duen foru arauan ezarritakoari jarraituz. Ezarri beharreko tarifak eta ehunekoaren taula jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia

3. artikulua

1. Hiri lursailek zergaldian izan duten balio gehikuntza da zerga gaia, lur horien jabetza edozein tituluz eskualdatzen bada edo horien gainean jabetza mugatzen duen edozein gozatze eskubide erreal eratzen edo eskualdatzen bada.

2. Ondorio hauetarako, honako hauek dira hiri lursail:

Hiri lurzorua, urbaniza daitekeena, lurzoru urbanizagarri programatua, edo programatu gabeko urbanizagarria Hirigintza Jarduerako Programa bat onartzen denetik, bide zolatuak edo espaloi zintarridunak dituzten lurzoruak, horretaz gain estolderia, ur hornidura, argindarraren hornidura eta argiteria publikoa badituzte, eta hiri izaera duten eraikuntzak kokatuta dauden lurak.

Era beran, nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutakolurrak, zatikapenak lurak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

3. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako, ezaugarri berezietako higiezintzat hartutako ondasun higiezinetan dauden lursailek jasaten duten balio-gehikuntza, zerga honen aplikazio eremuan egongo da.

III. Aplikazio Eremutik Kanpo

4. artikulua

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako, landa egoera duten lursailek izan dezaketen balio-gehikuntza, zerga honen aplikazio eremutik kanpo geratuko da.

2. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunetan ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko zaie, aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek egindako ekarpen, esleipen eta eskualdaketei.

Honako hauengatik ez da zerga ordainduko: ezkontideek beren artean, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek beren artean ondasun higiezinak eskualdatzeagatik edo gurasoek seme-alabei ondasun horiek emateagatik, epai bat dela medio, ezkontza baliogabetu, ezkontideak banatu edo dibortziatu badira edo, izatezko bikotea izanik, bikotea desegin bada. Berdin dio ekonomia erregimena ezkontza edo ondare bidezkoa izan, hurrenez hurren.

IV. Salbuespenak

5. artikulua

1. Honako egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio gehikuntzak salbuetsita daude zerga honetatik:

a) Zortasun eskubideen sorrera edo eskualdaketa.

b) Ondasunen eskualdaketak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 2/1989 Foru Arauak 4. artikuluko 1. paragrafoaren k) idatz zatian jasotzen duen salbuespena aplikagarri

dutenean, baldin eta jabeek edo eskubide errealen titularrek ondasun higiezin horien zaintze, hobekuntza edo birgaitzeko lanak egin eta ordaindu dituztela egiaztatzen badute.

2. Balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsita daude, zerga hau ordaintzea honako pertsona edo erakunde hauei dagokienean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, eta estatuaren erakunde autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga kobratzen duen udalerrria eta udal entitateak, udalerrri hori haien barruan badago, eta zuzenbide publikoko udal entitateak, Estatuaren erakunde autonomoen parekoak direnak.

c) Ongintzakotzat edo irakaskuntza eta ongintzakotzat izendatutako erakundeak.

d) Gizarte Segurantza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eraturakoak.

e) Administrazio kontzesioen titularrak, baldin eta kontzesio horiek eragindako lursailei berriro aplikatzea badago.

f) Gurutze Gorriaren eta arautegian zehaztuko diren antzeko erakundeen ondasunak.

g) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen arabera salbuetsita dauden pertsonak edo erakundeak.

h) Irabazteko asmorik gabeko erakundeak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoa) ezarritako modu eta baldintzetan.

V. Hobariak

6. artikulua

Lursailen eskualdaketetan, eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdaketa edo eraketan, heriotzagatik kosturik gabe eginak badira, Zergaren kuota gordinaren ehuneko 95eko hobaria aplikatuko da, eskuratzailerak lehen mailako ondorengo ahaide edo adoptatuak, lehen mailako aurreko ahaide edo adoptatzaileak eta ezkontidea edo (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak izanez gero) izatezko bikotekidea badira.

VI. Subjektu Pasiboa

7. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak honako hauek dira:

a) Lursailen eskualdaketan eta jabaria mugatzen duten gozatze eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, irabazteko badira, lursailaren eroslea edo dena delako eskubide erreala eratzean edo eskualdatzean onura jasotzen duena, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituenen arteko erakunde bat.

b) Lursailen eskualdaketan eta jabaria mugatzen duten gozatze eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, ordaintzeko badira, lursailaren eskualdatzailea edo dena delako eskubide erreala sortu edo eskualdatzen duena, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3 paragrafoak aipatzen dituenen arteko erakunde bat.

2. Aurreko paragrafoko b) idatz zatian aipatutako kasuetan, zergaduna Espainian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat izanez gero, lursailaren eroslea edo dena delako eskubide erreala eratzean edo eskualdatzean onura jasotzen duena joko da subjektu pasiboaren ordezkotzat,

dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko paragrafoak aipatzen disuenen arteko erakunde bat.

VII. Zerga Oinarria

8. artikulua

1. Lursailen balioaren gehikuntza da zerga honen oinarria. Gehikuntza hori zerga sortu zenekoa da, baita gehienez hogeitau urtekoepan sortutakoa ere.

Zerga oinarria zehaztearen ondorioetarako, kontuan hartu beharko da lursailak sortzapenaren unean daukan balioa, artikulua honetako 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, eta eranskinean jasotako eskalaren ehunekoa.

2. Lursailaren balioa sortzapenaren unean honako arauetan ezarrita aterako da:

a) Lurren eskualdaketetan, lursailak sortzapen unean duten balioa une horretantxe Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako ezarrita dagoen berbera izango da.

Dena dela, babes publikoko etxebizitzaren araubidean sartzen diren higiezinaren lursailen balioa, horren salmenta prezioari 0,2 koefizientea aplikatuz kalkulatu da.

b) Jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzean eta eskualdatzean, artikulua honetako 3. paragrafoko urteko ehunekoak aurreko letran zehaztutako balioaren partearen gainean aplikatu dira. Parte hori aipatutako eskubideen balioaren adinekoa izango da eta balio horren zenbatekoa Ondare Eskualdaketaren eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztu da.

c) Eraikin edo lursail baten gainetik solairu bat edo gehiago altxatzeko, edo lur azpitik eraikitzeko eskubidearen sorreran eta eskualdaketan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, artikulua honetako 4. paragrafoko urteko ehunekoak aplikatu dira, hain zuzen ere, aurreko a) letran zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluaren adinakoa, eta hori ezin bada, gorantz edo lur azpian eraikitzeko diren solairuen zabalaren edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoa zehaztu ondoren aterako dena, solairuak eraiki ondoren.

d) Nahitazeko desjabetzetan, lurzorua balioespenaren zatiari ezarriko zaizkio artikulua honetako 3. paragrafoko urteko ehunekoak, 2. paragrafo horretako a) idatz zatiaren zehaztutako balio txikiagoa izan ezean. Kasu horretan, balio hori hartuko da ontzat eta ez balioespenaren zatia.

3. Sortzapenaren uneko lursailaren balioari (aurreko 2. paragrafoan xedatutakoak eraginda) eranskinean jasotako eskalaren ehunekoak aplikatu zaizkio.

Arau hauek bete behar dira, 3. paragrafoan aipatutako ehunekoa zehazteko:

1º. Kargatutako eragiketa bakoitzaren balioaren gehikuntza, gehikuntza hori gertatu den urteetarako udalak ezartzen duen urteko ehunekoaren arabera izango da.

2º. Sortzapen unean lursailaren balioaren gainean aplikatu beharreko ehunekoa hau da: kasu bakoitzean aplikatu beharreko urteko ehunekoa bider balioaren gehikuntza gertatu den urte kopurua.

3º. Eragiketa bakoitzari aplikatu beharreko urteko ehunekoa lehenengo araua betez zehazteko, eta bigarren araua betez urteko ehuneko hori zenbat bider biderkatu behar den zehazteko, balioaren gehikuntza azaldu behar den aldiko urte osoak hartuko dira kontuan, eta ez urte zatiak.

4. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11 eta 12. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Zuiako Udalak 2000ko urtarrilaren 1eko katastro balioak berraztertu zituen. Horiek horrela, aurreko arauen arabera, zerga horren edo horren zati baten zerga oinarria zehazteko, katastro balio berri horiei ehuneko 40 kenduko zaie

katastro balio berri horiek indarrean daudeneko lehenengo bost urteetan. Paragrafo honetan xedatutako murrizketa ez da aplikatuko paragrafoko balioespen kolektiboko prozedura orokorrak eragindako katastro balioak ordura arte indarrean zeudenak baino txikiagoak direnean. Katastro balio murriztua ezin da izan, inola ere, lursailak balioespen kolektiboko prozeduraren aurretik izan duen katastro balioa baino txikiagoa.

VIII. Zerga Kuota

9. artikulua

Zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honi dagokion kuota.

IX. Zergaren Sortzapena

10. artikulua

1. Zerga honako egoera hauetan sortuko da:

a) Lursailaren jabetza gizaki bizidunen artean edo norbaiten heriotzak eraginda eskualdatzen denean, bai dohainik, bai ordainduta, eskualdaketa gertatzen den unean.

b) Jabaria mugatzen duen gozatzeko eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean, eratzea eta eskualdaketa gertatzen den garaian.

Aurrekoa argitzeko, honako hauek hartuko dira eskualdaketa eguntzat:

a) Gizaki bizidunen arteko egintza edo kontratuen kasuan, agiri publikoa ematen denekoa; agiri pribatuen kasuan, horiek errolda publiko batean sartzen edo inskribatzen direnekoa edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela-eta ematen zaionekoa.

b) Heriotzak eragindako eskualdaketetan, eragilea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozatzeko eskubide erreala eratzea edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz baliogabetu, deuseztatu edo bukarazten badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekartzen ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik lau urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera. Interesatuak Kode Zibilarren 1.295 artikuluan aipatutako itzulketak elkarri egin behar dizkietela justifikatu ezean, irabazteko asmorik badagoela uste izango da. Egintzak edo kontratuak irabazirik ekartzen ez badu ere, deuseztapena edo amaiera zergaren subjektu pasiboak bete beharrekoak bete ez dituelako deklaritzen bada, ez da ezertxo ere itzuliko.

3. Kontratuaren bi aldeek hala hitzarturik kontratua bertan behera geratzen bada, ez da ordaindutako zergaren zenbatekoa itzuliko eta zergapeko egintza berritatzat joko da. Bi aldeek adiskidetzeko eta demanda onartze hutsa hitzarmen horren adierazletzat joko dira.

4. Baldintzaren bat duten egintza edo kontratuetan, Kode Zibilean jasotako aginduen arabera egingo da kalifikazioa. Baldintza etenarazlea bada, zerga ez da ordainduko baldintza betetzen ez den bitartean. Baldintzak baliogabetzea badakar, zerga itzultzeko eskaera egingo da, baina baldintza betetzen denean, aurreko puntuko arauak diotenari jarraituz itzuliko da zergaren zenbatekoa.

Testamentua egiteko ahalmena pertsona jakin bati utziz atzeratzen diren jaraunspenetan, ahalmena guztiz erabilitakoan edo ahalmena iraungitzeko gainerako kausaren bat agitzean sortuko da zerga.

Testamentua egiteko ahalmenean zerga honen menpe dauden jaraunspen ondasunak gozamenerako emateko eskubidea norbaiti ematen bazaio, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, lamena horretaz baliatzen ez den bitartean: behin-behineko likidazio bat, batetik, ondorengotza zabaltzean ordainduko dena, biziarteko gozamenaren arauari jarraituz, eta behin

betiko likidazio bat, bestetik, testamentua egiteko ahalmenaz baliatzean, aldi baterako gozamenaren arauari jarraituz, kausatzailea hil zenez geroztik pasatutako denborarengatik. Behin-behineko likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat joko da, eta bien arteko aldea gozamenaren itzuliko zaio, haren aldekoa gertatzen bada. Aldi baterako gozamenarengatik egiten den behin betiko likidazio hori jaraunselearekin batera egingo da, jaraunsele horiek testamentu ahalmenarengatik edo hura amaitzeagatik baldin badira jaraunsele.

X. Kudeaketa

11. artikulua

1. Subjektu pasiboek zerga aitortpena aurkeztu beharko diote uval administrazioari, udalak berak emandako eredu ofizialari jarraituz; eredu ofizial horretan zerga harremanaren elementuak eta likidazioa egiteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiak egon beharko dute.

2. Aitortpena honako epeetan aurkeztuko da, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita:

a) Gizaki bizidunen arteko egintzak direnean, epea 30 egun baliodunekoa izango da.

b) Heriotzak eragindako egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetera ere luza daitekeena, subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

3. Aitortpenarekin batera, ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak zehazki azaltzen dituen agiri konpultsatu bat aurkeztu behar da.

Eskatutako salbuespenak edo hobariak egoki justifikatu beharko dira agiri bidez.

Zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak hogeita hamar eguneko epean aurkezteko eskatu ahal izango die udalak interesdunei; interesdunak eskatuz gero, beste hamabost eguneko epe luza daiteke epea. Egindako eskaerei epe horien barruan erantzuten ez dituztenek, dagozkien zergen alorreko arau hauste eta zehapenak izango dituzte, aipatutako agiriak aitortpena egiaztatze beharrezkoak diren neurrian. Agiri horiek interesatuak bere onurarako besterik alegatu ez dituen inguruabarrak frogatzeko tresnak badira eta errekerimendua betetzen ez bada, alegatu baina justifikatu ez diren egoerak kontuan hartu gabe egingo da likidazioa.

12. artikulua

1. Aurreko 11. artikuluan 1. zenbakian xedatutakoa alde batera utzita, honakoek ere subjektu pasiboentzat jarritako epe beretan emango diote zerga gaiaren berri udal administrazioari:

a) Zerga ordenantza honetako 7 artikuluan a) letran jasotako egoeretan, bizien arteko negozio juridikoen kasuan, eskubide erreala osatu edo eskualdatzen duen emaile edo pertsona.

b) Aipatutako 7 artikuluan b) letran jasotako egoeretan, eskuratzailerak edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona.

2. Era berean, hiruhileko naturalaren lehenengo hamabostaldian, notarioek aurreko hiruhileko naturalean baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote udalari. Serenad horretan, udalerrian zerga gaia gauzatu dela adierazten duten ekitaldi, egintza eta negozio juridikoak jasoko dira, azken borondateari loturikoak izan ezik. Halaber, ekitaldi, egintza eta negozio juridiko horiek jasotzen dituzten agiri pribatuen zerrenda bidali beharko dute epe berberaren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legeztatze beharrezkoak aurkeztu bazez. Artikulu honetan xedatutakoa ez da eragozpen Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek ezarritako lankidetzaren betebeharrak orokorra betetzeko.

Notarioek berariaz ohartaraziko diete agertzen direnei, notarioek eurek baimendutako agiriaren bitartez, zein epe duten zergaren aitortpena aurkezteko, eta zer erantzukizun izango duten aitortpena aurkezten ez badute.

13. artikulua

1. Baldin eta udal administrazioak jakiten badu zerga gaiak gauzatu direla eta horiek ez bada deklaratu, interesdunei aitortzen hori egiteko eskatuko die, 11. artikuluan ezarritako epeen barruan; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko liriteke.

2. Udal administrazioak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagoen aitortzen aurkezten ez badute, ofiziosko espedientea bideratuko da, eskuera dituzten datuez baliatuz, eta dagokien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekursoak adierazita, hala badagokio; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko liriteke.

Xedapen Gehigarria

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Arauak ezarritakoa kontuan hartuz eta 8.2 b) idatz-zatian adierazitakoaren ondorioetarako, honako hauek bete beharko dira:

1. Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balio osoaren proportzionaltzat joko da, urtebete bakoitzeko ehuneko 2ren proportzioan, ehuneko 70etik gora jo gabe. Aldi baterako gozamenaren balioa konputatzeko ez da kontuan hartuko urterik beherako denbora zatiak, nahiz eta urterik beherako denboragatiko gozamenaren ondasunen balioaren ehuneko 2an konputatuko den.

2. Bizitza osorako gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70 izango da, gozamenaren 20 urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiago izango da balioa, hain zuzen ere, ehuneko 1 gutxiago urte bakoitzeko eta, gehienez, balio osoaren ehuneko 10era iritsiko da.

3. Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamenak 30 urtetik gora edo denbora-epe mugagabe batez irauten badu, baldintza baliogabetzaileari lotutako jabetza osatu baten eskualdaketatzat joko da zergen aldetik.

4. Jabetza hutsen eskubideen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza hutsa aurreko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuz kalkulatu da.

5. Erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubide errealeen balioa, eskubide horiek jasotako ondasunen balioaren ehuneko 75i, kasuan kasu, aldi baterako edo bizitza osorako gozamenaren balorazioaren gaineko arauak aplikatuz lortuko da.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen asken aldaketa 2011ko urriaren 28an onartu zen, eta indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den biharamunean, eta indarrean jarraituko du ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza**Eranskina****I. Ehuneko en taula**

EPEALDIA	URTEKO EHUNEKOA
a) 1 – 5 urte	ehuneko 3,1
b) 10 urtera arte	ehuneko 2,8
c) 15 urtera arte	ehuneko 2,7
d) 20 urtera arte	ehuneko 2,7

II. Tarifa

Karga Mota: ehuneko 15

Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala –eranskin hone-tan jasotzen den tarifa eta bilketarako aldia horren parte dira-, 2011ko urriaren 28an onetsi zen.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza**I. Xedapen Orokorrak****1. artikulua**

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia**3. artikulua**

Honakoek osatuko dute zerga gaia:

1. Bide publikoetatik ibil daitezkeen trakzio mekanikoko ibilgailuen titularra izatea, ibilgai-luak edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honetakoa bada.

2. Zirkulaziorako ibilgailu egokia da dagokion erregistro publikoetan matrikulatu den eta horietan bazarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, egoki izango dira, ha-laber, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak.

3. Honako hauei ez zaie ezarriko zerga:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, nahiz eta, sal-buespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatueta ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdiatoiei, baldin eta haien karga erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.

III. Salbuespenak eta Hobariak

4. artikulua

1. Honakoak salbuetsiko dira zerga ordaintzetik:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetakako funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten Nazioarteko Erakundeen ibilgailuak, baita bertako funtzionarioen edo estatuto diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko ambulanziaz eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Arautegi Orokorren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak. "350 kg edo hortik beherako tara duen ibilgailua, eraikitzeke moduagatik lurralde lauan 45 km/h abiadura ezin badu gainditu eta ezinduen izenean berariaz eraiki edo proiektatu bada (ez da nahikoa egokitzearekin). Gainerako ezaugarri teknikoek dagokienez, hiru gurpileko ziklomotorrekin parekatuko da".

Era berean, zergaren ordaintzetik salbuetsiko dira 14 zerga zaldi duten eta elbarrien izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai elbarriek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi lerroaldeetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikagarri izango onuradun diren subjektu pasiboei ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Hizki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ezindua izango dira:

a') Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako ezintasuna aitortuta duen pertsona eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

b') Ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonak.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdiatoi eta makinak.

2. Ordenantza honen 1.paragrafoaren e) eta g) idatz zatietan aipatutako salbuespenek arau eta erregru izaera izango dute. Onartu ere alkatearen ebazpenean jasotako administrazio egintza adieraziaren bidez onartuko zaie hurrengo idatz zatietan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboei eta aldeztu aurretik eskaera egin duten interesdunei.

— e) idatz zatia dagokionez:

1. Ezinduen izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuei dagokienez, ondokoak aurkeztuko dira: Gidatzeko baimenaren fotocopia, Arabako Foru Aldundiak edo organo

eskumendunak emandako ezintasun agiriaren fotocopia konpultsatua. Ez da nahikoa titulu izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa. Gidatzeko baimenaren fotokopia (aurreko eta atzeko aldeka). Ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotocopia konpultsatua eta eskatzailearen sinpeko aitortpena, ez duela ibilgailu salbuetsi bat ere adierazten duena.

2. Desgaituak eramateko ibilgailuak: Aurreko puntuan eskatutakoak eta zinpeko aitortpena, ibilgailua desgaituak ez beste inork erabiliko duela adieraztekoa.

– g) idatz zatiari dagokionez:

Gidatzeko baimenaren fotocopia konpultsatua, ibilgailuaren ezaugarri teknikoen egiaztagiriaren fotocopia konpultsatua, ibilgailuaren jabearen izenean egindako Nekazaritzako Ikuskatze Txartelaren fotocopia konpultsatua. Salbuespen hau ez da bidezkoa izango udal administrazioak nekazaritzarako traktoreek, atoeiek eta erdi atoeiek nekazaritzakoak ez diren gai edo merkantziak garraiatzen dituztela egiaztatzen duenean edo horrelako ustiaketetarako beharrezkoak ez direla ikusten duenean.

Orokorrean, salbuespenak eskaera egin eta hurrengo ekitaldian emango dira eta ez dute atzeraeraginezko ondoriorik, Baina, zerga hobaria eskatzen bada likidazioa irmo izan aurretik, hobaria emango da, betiere zerga sortzen den datan horretaz baliatzeko exijitzen diren baldintzak betetzen badira.

3. Ehuneko 25eko hobaria aplikatuko zaio bost plaza edo gehiagoko turismo ibilgailuei dagokien zergaren tarifari, indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariako kide baten titularitatepekoa bada. Hobari horrek urteko iraupena izango du.

4. Zergaren kuotan ehuneko 100eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoentzat edota fabrikazio datatik kontatzen hasita gutxienez 25 urte dituztenentzat. Data hori jakin ezean, lehenengo matrikulazioaren data edo, horrelakorik ez bada, ibilgailu mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaion eguna hartuko da kontuan. Hobari horrek iraupen mugagabea izango du, ordenantza aldatzen bada izan ezik.

5. Turismo, kamioi, furgoi, furgoneta, egokitzeko moduko ibilgailu misto, autobus ibilgailuek, zergaren kuotan hobaria izango dute; kuota hori motorren ezaugarrien, ibilgailuak kontsumitzen duen erregailu motaren eta ingurumenean errekuntzak duen eraginaren arabera. Dena dela, honako baldintzetako batzuk bete beharko dituzte:

a) Ibilgailu hibridoak izatea (motor elektriko- gasolina, motor elektriko-diesel edo motor elektriko- gas), betiere fabrian homologatu baldin badituzte eta mota eta modelo horietarako egokiak diren katalizatzaileak jarrita badituzte, isurketa kutsakorrek gutxitzeko modukoak alegia.

b) Erregai malguetako ibilgailuak izatea (Flexi-Fuel- FFV ibilgailuak), betiere fabrian homologatu baldin badituzte eta E85 nahasketa (ehuneko 85 bioetanol eta ehuneko 15 gasolina) ibiltzeko prestatu baldin badituzte.

a) eta b) kasuetan, ibilgailuek zergaren kuotaren ehuneko 50eko hobaria izango dute lehenengo matrikulazioa egin eta hurrengo lau urteetan.

c) Gasolina edo diesel motorra duten turismotzat sailkatutako ibilgailu berriak izatea, betiere marka eta modelo hori A Eraginkortasun Energetiko sailkapeneko ibilgailu eraginkorren artean badago, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren eta abuztuaren 2ko 837/2002 Foru Dekretuaren arabera. Foru Dekretu horrek Espainian salmentan jarri edo finantza errentamenduan ematen diren ibilgailuek kontsumitzen duten erregaiari eta isurtzen duten CO2 buruzko informazioa arautzen du. Ibilgailuek zergaren kuotan ehuneko 25eko hobaria izango dute lehenengo matrikulazioa egin eta hurrengo bi urte naturaletan.

d) Motor elektrikoa edo isurketarik gabeko ibilgailuak izatea. Ibilgailu horiek kuotan ehuneko 50eko hobaria izango dute.

Aipatutako salbuespen eta hobari horiek emateko, Udalak ezaugarri teknikoen Ziurtagiria eta ibilgailuaren Zirkulazio Baimena eska ditzake.

Aurreko bi ataletan aurreikusten diren hobariak, eskaera egin eta hurrengo ekitaldian emango dira eta ezin dute atzeraeraginezko ondorioz izan. Baina, zerga hobaria eskatzen bada likidazioa irmo izan aurretik, hobaria emango da, betiere zerga sortzen den datan horretaz baliatzeko exijitzen diren baldintzak betetzen badira.

IV. Subjektu Pasiboak

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio baimean ibilgailua haien izenean edukiz gero.

V. Kuota

6. artikulua

1. Zerga tarifen taula honen arabera eskatuko da:

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	KUOTA/EURO
A) Turismoak	
8 zerga zaldi baino gutxiagokoak	15,24
8 eta 11,99 zerga zaldi bitartekoak	43,16
12 eta 15,99 zerga zaldi bitartekoak	91,11
16 eta 19,99 zerga zaldi bitartekoak	113,49
20 zerga zaldi baino gehiagokoak	141,90
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiagokoak	99,44
21 - 50 plaza bitartekoak	143,16
50 plaza baino gehiagokoak	178,92
C) Kamioiak:	
1.000 kg baino karga erabilgarri txikiagokoak	51,00
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	100,52
2.999 kg eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	143,16
9.999 kg baino karga erabilgarri handiagokoak	178,92
D) Traktoreak:	
16 zerga zaldi baino gutxiagokoak	21,32
16 eta 25 zerga zaldi bitartekoak	33,47
25 zerga zaldi baino gehiagokoak	100,52
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak:	
750 eta 1.000 kg bitarteko karga erabilgarrikoak:	21,32
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	33,47
2.999 kg baino karga erabilgarri handiagokoak	100,52
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	5,34
125 cm ³ -ra bitarteko motozikletak	5,34
125 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	9,05
250 - 250 cm ³ bitarteko motozikletak	18,29
500 eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	36,56
1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak	73,08

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; horrez gain, honako arauok ere kontuan izan beharko dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen denean, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, potentzia fiskalaren arabera, honakoetan izan ezik:

Lehena. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, eramateko prestatuta badago, autobusari dagokion zerga ordainduko du.

Bigarrena. Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindrada edukieraren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arrastatze potentzia daramanak eta atoi eta erdi-atoi arrastatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotore, atoi eta erdi-atoien kasuan, daukaten edukiera dela-eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitzen joko dira dagokion egiaztagiria Industria Ordezkaritzak ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, zirkulazioan dauden unetik beretik.

e) Bide publikoetatik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropulsatuek traktoreei dagozkien tarifaren arabera ordainduko dute zerga.

f) Edozein modulan, tarifetako D) hizkian aipatzen den "traktoreak" izen orokorra, kamioi tractores eta "obra eta zerbitzuetako tractores" ari da.

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren 11,20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

VI. Zergaldia eta Sortzapena

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailuen lehen eskuratze edo baja kasuan salbu. Horrelakoetan, eskuratzean hasiko da zergaldia, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3. Ibilgailuren bat lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan, edo ibilgailuaren baja ematen den egunaren arteko aldiari dagokiona, hala badagokio.

4. Ibilgailuaren baja ematen denean, urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren baja ematen den egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan zergaren kuota kalkulatzeko.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztatzea.

11. artikulua

Zerga ekitaldi bakoitzeko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartean ordainduko da; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

Matrikulazio berririk bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik bada, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren 30 egun baliordueko epean, interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren erroldan sartzeko:

- a) Gidabaimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztatzea.
- c) NAN edo IFK.

13. artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa eta gidatzeko gaitasun egiaztatzea eskatzen dutenek aurretik zerga ordaindu dutela kreditatu beharko dute.

2. Ibilgailuen titularrek, Trafiko Buruzagitzan ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean, baldin eta horrek Zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzen badu, bai eta eskualdaketaren kasuan, ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den egoitza aldatzean, edo ibilgailu horien baja ematean ere, Trafiko Buruzagitzan alde aurretik kreditatu beharko dute zerga kobratzean aurkeztutako azken ziurtagiria. Hala ere, kudeaketa eta ikuskatze bidez eskatu ahalko da kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako eta kobratzean aurkeztutako eta iraungi gabeko kontzeptuagatik zorra ordaintzea. Egiaztatze betebeharrak hori salbuetsiko da hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko baje kasuan.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, alde aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2011ko urriaren 28an onartu zen, eta indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den biharamunean, eta indarrean jarraituko du ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Jabetza Publikoaren Erabilera Pribatuagatik edo Aprobetxamendu Bereziagatik Ordaindu Beharreko Tasak arautzen dituen Ordenantza**I. Xedapen Orokorrak****1. artikulua**

Udalak tasak ezarri eta eskatuko ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziarengatik, ordenantza honetan ezarritako arauak jarraituz eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrira osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia

3. artikulua

Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia da zerga gaia.

III. Subjektu Pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak izango dira, zergapekoak diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta herriko jabari publikoetz gozatzen badute edo horiek erabili edo aprobetxatzen badituzte beren onurarako.

2. Ibilgailu edo gurdientzako espaloietako sarrerak direla-eta erabilera pribatuarengatik edo aprobetxamendu bereziarengatik ordaindu beharreko tasak direnean, edo sarrerak eraikitze, mantentzeko, aldatzeko edo kentzeko xedatutako tasak direnean, ibilgailuen sarrerak dagozkien funtsen eta lokalen jabeak izango dira zergadunen ordezkioak. Hala dagokionean, onuradun bakoitzari ordainarazi ahalko dizkiote kuotak.

3. Administrazio publikoek, erkidego autonomoek eta toki erakundeek ez dute tasa-rik ordaindu beharko, baldin eta jabari publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide-zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak eta herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

5. artikulua

Tasak dagozkien lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte edo, bestela, aprobetxamenduaz onura ateratzen dutenek.

IV. Salbuespenak, Murrizketak eta Hobariak

6. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

V. Zerga Oinarria

7. artikulua

Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

VI. Kuota

8. artikulua

1. Zerga kuota zein izango den eranskinean zehaztuko da. Tarifa bat aplikatuz lortzen dena izan daiteke, edo horretarako ezarritako zenbateko finko bat, edo bi prozedurak batera aplikatzearen ondorioa.

2. Erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela-eta uval jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua Osorio itzuli beharko du onuradunak, baita horri dagokion zenbatekoa aldeztu aurretik gordailutu ere.

Kalteak konponezinak balira, udalak kalte ordaina jasoko luke, apurtutako ondasunek edo hondatutako kalteek egiten dutenaren parekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu, ez zati batean ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte ordain eta itzulketak.

VII. Sortzapena eta Zergaldia

9. artikulua

1. Zerga gaiaren izaeraren arabera, herriko jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela kausa ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: edo erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa alde aurretik gordailutzeko eska daiteke; edo jarduera edo espedientea abiarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta orduan jarduera ez da burutuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2. Tasaren izaera materiala dela-eta tasa aldian-aldian portu behar bada, hori urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean egingo da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasi edo amaitzen den kasuetan izan ezik, egoera horretan zergaldia horren arabera egokituko baita, kuotari dagokion hainbanaketa ezarrita, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla-eta jabari publikoaren aprobetxamendurik ezin bada egin, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII. Likidazioa eta Ordainketa

10. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

IX. Tasen Kudeaketa

11. artikulua

Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta egoera bakoitzari dagokion zigorrak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorak xedatutakoa aplikatuko da.

Azken Zedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2015eko apirilaren 23an onartu zen, eta indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen denean eta indarrean jarraituko du ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskina

1. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal bide publikoetako lurrazaleko, aireko edo lurpeko okupazioa egitea.

Hornidura zerbitzuak –biztanle zati bati edo gehienei reagiten badie– ustiatzen dituen enpresak udalerrian urtero egiten duen fakturaziotik lortutako sarrera gordinen ehuneko 1,5 ordaindu beharko du beti eta inolako salbuespenik gabe, dagokion hitzarmenean ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Lanpostuak

Zerga ordaintzeko betebeharra jabari publikoa erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia edo udal baimena ematen denean sortzen da edo baimenik izan ez arren jabari publikoa erabiltzen edo okupatzen hasten denean.

Lurrak okupatzeko baimena jaso duten pertsonak edo erakundeek dute zergak ordaintzeko betebeharra, edo, bestela, aprobetxamendua egiten dutenek.

Toki bakoitzeko honakoa ordainduko da urtean:

– Erroldatuak: 30,00 euro. Horretarako, toki bakoitzak 4 metro lineal dituela ulertuko da. Neurri hori gaindituz gero, okupatutako 4 metroko zatiki adina tokiengatik ordainduko da.

– Gainerakoak: 35,00 euro. Horretarako, toki bakoitzak 4 metro lineal dituela ulertuko da. Neurri hori gaindituz gero, okupatutako 4 metroko zatiki adina tokiengatik ordainduko da.

Tarifa bera aplikatuko zaie trakzio mekanikoko ibilgailuez okupaturiko tokiei (denda-kamioiak).

– Txosnak: 100 euro.

3. Beladoreak (mahaia eta lau aulki) eta itxitura duten terrazak.

– Mahaia eta aulkiak: mahai eta lau aulkiko multzoko (beladorea), urtean, 33,00 euro.

Aplikazio arauak:

1. Baimena alkate- lehendakariak edo eskuordetza jasotzen duen zinegotziak emango du, urtebeteko indarraldia izango du eta hurrengo urteetan luzatutzat joko da instalatutako mahai kopurua aldatzen ez bada edo jarduera eteten ez bada, izan ere, kasu horretan Udalari horren berri eman beharko zaio.

Ezingo dira oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen duen edo eraikin edo dendetara askatasunez sartzeari eragozten duen elementurik jarri, ezta horiei dagokien lursaileko fatxadako lineatik kanpo ere, salbu beharra justifikatzen bada, fatxadako lineara mugatzea ezinezkoa dela justifikatzen bada eta Udalaren oniritzia jasotzen badu.

2. Urteko tarifa ezingo da murriztu, aprobetxamendua urteko egun guztietan gauzatzen ez bada ere.

3. Ordaintzeko betebeharra okupazioa ahalbidetzen duen uval lizentzia ematean edo okupazioa benetan gauzatzen denean (beharrezkoa den lizentziarik gabe egiten bada) sortzen da.

4. Derrigorrez ordaindu beharko dute udal lizentziaren titularrek eta lizentziarik gabe tasa honen xede diren elementuetariko batekin bide publikoa okupatzen dutenek. Solidarioki derrigorrez ordaindu behar dute okupazioa zehazten duten establezimenduen jabeek edo titularrek..

– Itxitura duen teraza:

– 50 m² arte: tasa finkoa, 126 euro urtean.

– 51 m² eta 165 m² artean: 10,08 euro/m² azalera/urtean.

4. Materialak eta hondakinak biltzeko eta ondoren garraiatzeko edukiontzia edo elementu osagarriak bide publikoan jartzeagatik asteko edo zatikiko ordaindu beharrekoa: 40 euro.

Zerbitzu Publikoak Eskaintzeagatik eta Administrazio Jarduerak Egiteagatik Ordaindu Beharreko Tasak arautzen dituen Ordenantza

I. Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenari jarraituz, udal honek ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honen arabera; tasa horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga Gaia

3. artikulua

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga-gaia, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

Zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu hauek ezartzeak edo zabaltzeak sor litzakeen tasa bereziak ordaindu beharko ez direnik.

III. Subjektu Pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikulua aipatzen dituen entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen dutenean.

2. Hurrengoak izango dira zergadunaren ordezkioak:

a) Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileentzat onuragarriak edo eragingarriak diren zerbitzuengatik edo jarduerengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Zenbait kasutan, dagokien onuradunei ordainarazi ahal dizkiete tasa horiek.

b) Suteen kontrako eta suteak itzaltzeko neurriak hartzeagatik ematen diren zerbitzuengatik ezarritako tasetan; aurri, eraikuntza eta eraipen egoeretakoetan, eta salbamendukoetan, eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestekoak direnean, bai eta zerbitzua mantentzeko direnean ere, arriskua aurreikusten duten erakundeak edo elkarteak.

c) Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hurrengoek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoak eskatu baditu, eskatu duena.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatuz badituzte baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokiena.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

IV. Salbuespenak, Murrizketak eta Hobariak

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

V. Zerga Oinarria

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. Kuota

9. artikulua

1. Zerga kuota zein izango den eranskinean zehaztuko da. Tarifa bat aplikatuz lortzen dena izan daiteke, edo horretarako ezarritako zenbateko finko bat, edo bi prozedurak batera aplikatzearen ondorioa.

VII. Sortzapena eta Zergaldia

10. artikulua

1. Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko da. Hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

2. Tasa urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera izango da zor eta zergaldiak urte osoa hartuko du, salbu eta zerbitzu edo jarduera hasi edo uzten den urtean. Horrelakorik gertatuz gero, zergaldia egoera horri egokituko zaio eta kuota hainbanatu egingo da, baldin eta eranskinean jasotako aplikazio arauak hala xedatuta badute.

VIII. Likidazioa eta Ordainketa

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

12. artikulua

Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa aplikatuko da.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2015eko urriaren 8an onartu zen behin betiko, 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

Eranskina

1. Urez hornitzeko zerbitzua:

a) Etxeko erabilerak:

– Zerbitzu kuota: Seihilekoa, 50 m³- raino (0,252 euro/m³): 12,60 euro

Seihilekoan gutxienez fakturatu beharreko kontsumoa 25 m³ edo 6,30 eurotan ezartzen da.

– Kontsumo kuota:

Seihilekoa, 51 m³- tik 80 m³ra: 0,39 euro/m³

Seihilekoa, 81 m³- tik 150 m³ra: 0,75 euro/m³

151 m³- tik aurrera: 0,94 euro/m³

– Etxean erabiltzeko kontsumoaren lehenengo tartean ehuneko 10eko hobaria finkatu da 5 pertsona edo gehiago errolatuta dauden etxebizitzetako erabiltzaileen alde. Hobaria eskatzeko epea bi seihilekoetan, urte bakoitzaren urtarrila izango da.

– Etxean erabiltzeko kontsumoaren bigarren tartean ehuneko 15eko hobaria finkatu da 5 pertsona edo gehiago erroldatuta dauden etxebizitzetako erabiltzaileen alde. Hobaria eskatzeko epea bi seihilekoetan, urte bakoitzaren urtarrila izango da.

– Etxean erabiltzeko kontsumoaren hirugarren tartean ehuneko 20eko hobaria finkatu da 5 pertsona edo gehiago erroldatuta dauden etxebizitzetako erabiltzaileen alde. Hobaria eskatzeko epea bi seihilekoetan, urte bakoitzaren urtarrila izango da.

– Ehuneko 40ko hobaria ezartzen da abeltzaintza-ustiapenentzat 150 m³-ko kontsumotik aurrera. Hobari hori eskatzeko epea urte bakoitzeko urtarrila izango da, seihileko bietarako.

b) Hartune berriagatik ordaindu beharreko tasa: 521 euro.

c) Kontagailuak zaintzeagatik tasa:

– 7 mm- tik 13 mm- ra: 4,38 euro/urtea

– 15 mm- tik: 4,97 euro/urtea

– 20 mm- tik: 5,62 euro/urtea

– 25 mm- tik: 6,47 euro/urtea

– 30 mm- tik: 7,70 euro/urtea

– 40 mm- tik: 10,55 euro/urtea

– 50 mm- tik: 21,70 euro/urtea

d) Kontratua aldatzeagatik: 83,36 euro. Aurreko titularraren heriotza dela eta, kontratuan alta ematen duten hauek salbuetsita egongo dira: lehen mailako ondorengoak edo adoptatuak, lehen mailako arbasoak edo adoptatuak, eta ezkontidea edo izatezko bikotekidea, azken hau, maiatzaren 7ko Eusko Legebiltzarraren 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik eratuak.

Harpidedunari sei hilabeterik behin edo sarriago kobratuko zaizkio fakturak.

Kontagailuak erregistratzen duena hartuko da benetako kontsumotzat. Kontsumo hori arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori hartuko da kontsumitutzat, edozein dela ere kontagailuak markatzen duen kopurua.

Kontagailuak matxuraren bat duelako edo ondo ez dabilelako, kontsumitutzatko ura zenbat izan den ezin bada jakin, aurreko urteko aldi berbereko ordainagiriari zegokion ur emaria kontsumitu dela joko da, eta, horrelakorik egon ezean, azken hiru ordainagiriaren batez bestekoa.

Ordainketa araututako epean egingo da, sei hilabete behin, uztailearen 15etik irailaren 15era arte eta urtarrilaren 15etik martxoaren 15era arte.

a) Goiko saretik urtez hormitzea (herriak urez hornitzea): 0,47 euro/m³

2. Zaborra biltzeko zerbitzua:

Etxebizitzak	63,26 euro
Profesionales lokalak	63,26 euro
Dendak	126,44 euro
Zerbitzuetarako lokalak	
Altube Estatua	3.811,06 euro
Guardia Zibilaren Kuartela	512,00 euro
Aita Pauldarrak	151,44 euro
Lanbide Heziketako Institutua	151,44 euro
Karitateko Ahizpak (Zaharra)	151,44 euro
Zarateko Karmeldarrak	151,44 euro
Markinako Landa Etxea	151,44 euro

Sarrito Aterpetxea	151,44 euro
Ostalaritza - Kirolak	
Txokoak	177,08 euro
Taberna Kafetegiak	177,08 euro
Sardexka Bateko Jatetxeak	303,62 euro
Sardezka Biko Jatetxeak	379,30 euro
Estatua-Nekazaritza Turismoa	155,42 euro
Hotelak	155,42 euro
Adineko pertsonen egoitza 20 leku	155,42 euros
Adineko pertsonen egoitza 21 eta 40 leku artean	260,72 euros
Adineko pertsonen egoitza 40 baino gehiago	365,90 euros
Kirolgunea	523,82 euro
Gizarte Zentroak	112,48 euro
Industria	
500 m ² edo gutxiago	139,90 euro
501 eta 1.000 m ² bitartean	511,86 euro
1.001 eta 3.000 m ² bitartean	784,44 euro
3.001 eta 10.000 m ² bitartean	1.176,70 euro
10.000 m ² baino gehiago	1.568,96 euro

Gorago aipatutako epigrafeetan jasotzen ez diren dendek, industriek eta fabrikek itxura dela eta ondoen egokitzen zaien taldekoek ordaintzen dutenaren arabera ordainduko dute.

Tarifak aplikatuzetik sortzen diren kuotak urteari dagozkio, eta zorra urte bakoitzeko lehenengo egunean sortzen da; Udalak, hala ere, seihilekoetan kobra dezake tasa hori.

3. Estolderia zerbitzua:

a) Hartunea baimentzeagatik edo baimena emateagatik: 637,70 euro.

b) Zerbitzua emateagatik: Ur-kontsumoaren araberrako tasa izango da 0,15 euro/m³ ur bakoitzeko, seihilekoko gutxieneko kontsumoa 3,75 eurokoa izanda (hots, gutxienez 25 m³ ur).

Ordainketa araututako epean egingo da, sei hilabete behin: uztailaren 15etik irailaren 15era arte eta urtarrilaren 15etik martxoaren 15era arte.

4. Musika eskola: 2016/17 ikasturtetik.

– Matrikula: 59,60 euro, erroldatuak.

90,00 euro, erroldatu gabeak.

– Hastapenak, musika hizkuntza eta abesbatza: 10,85 euro hilean, erroldatuak.

16,27 euro hilean, erroldatu gabeak.

– Musika tresna eta musika tresna taldea: 14,10 euro hilean, erroldatuak.

21,15 euro hilean, erroldatu gabeak.

Familia-unitatearen diru-sarreraren araberrako hobariak kuotetan:

Ehuneko 75, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatarenak edo hortik beherakoak direnean.

Ehuneko 50, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren eta gutxieneko soldata hori 1,2tik biderkatzearen ondoriozko emaitzaren artekoak direnean.

Ehuneko 30, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata 1,2tik eta 1,4tik biderkatzearen ondoriozko emaitzen artekoak direnean.

5. Hondakin urak araztegian isurtzea:

Udalerrian araztegi lotuta ez dauden gunek jakin batzuetan dauden hobi septikoetatik edo saneamendu instalazioetatik datozen etxeko hondakinak araztegi isuri daiteke araztu ahal izan daitezen. Horretarako, honako baldintzak beteko dira:

- Zuiako Udaleko baimena izatea isurketak egin ahal izateko.
- Dagokion kanona ordaintzea, hau da, 62,62 euro isurketako (isurketatzat hartuko da kamioiaren osterako bakoitza).

6. Arazketa:

Hondakin uren tratamendurako zerbitzuarengatik:

- Ur-kontsumoaren arabera: 0,15 euro/m³ ur bakoitzeko, sei hilekoko gutxienekoa 3,75 euro izanda (hots, gutxienez 25 m³ ur)

7. Zuiako eskolaratutako ikasleentzako ordu zerbitzu zabaldua 2016/17 ikasturteari aurrera.

- Hileko 15 euroko gutxieneko kuota ezartzen da zerbitzua erabili ahal izateko. Bajek jakinarazi eta hurrengo hilabetetik aurrera izango dituzte ondorioak.
- Ordutegi luzatua 7: 30etik 9: 30era: 54 euro/hila, gutxieneko hileko kuota barne hartuta.
- Erabilera puntuala edo noizbehinkakoa: 6 euro/eguna. Seigarren egunetik aurrera, bakarrik 54 euroko hileko kuota kobratzen da.

Zerbitzuak eman eta Jarduerak egiteagatik Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak (ondoren azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu zuen) xedatzen duenari jarraituz, udal honek ordenantza honeneranskinean ageri diren zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honen arabera; prezio publiko horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau Zuiako udalari osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak zerbitzuetatik edo jardueretatik etekina ateratzen dutenek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoen tarifak eranskinean jasotzen dira.

5. artikulua

Eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduerak bakoitzeko ordaindu beharko dira kopuru horiek, eta ezin izango dira murriztu epigrafeetan jasotako zenbatekoak.

6. artikulua

Ordenantza honetan jasotzen diren udal zerbitzu horiek jasotzeko edo jarduerak egiteko, aldezturik Zuiako Udalari eskatu beharko zaio zerbitzuak eman emateko edo jarduerak egiteko. Edonola ere, zerbitzu horiek emanda daudela eta jarduerak eginda daudela ulertuko da ordenantza honetan araututako prezio publikoen baldintzapean, eta luzatu ondoren; prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua ez da emango edo jarduerak ez da egingo.

7. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua jasotzen hasten den unean edo jarduera hasten den unean sortuko da.

Hala ere, emandako zerbitzuen edo egindako jardueren kasuan, eta luzatutakoetan, ordaindu beharra tarifa bakoitza ordaintzeko epe naturalari dagokion lehenengo egunean sortzen da.

8. artikulua

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

a) Zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea denean, erabiltzaileek adierazitako gutxienezko zenbatekoaren ordainketa egingo dute zuzenean udal kutxetan dirua sartuz, zerbitzua eman aurretik edo jarduera egin aurretik.

b) Zerbitzuen edo jardueren izaera dela eta, dirua aurretik sartu ezin denean, Zuiako Udalak dagokion ordainagiria aurkezten duen unean.

c) Urtero ordaindu beharreko zerbitzuei eta jarduerari dagokienean, urtero egiten diren prezio publikoen zerrendan sartu ondoren.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da, prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak direla-eta lagapena egin ezin denean.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzeagatik eragindako zorral premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Hobariak kuotetan: ekintzen erabiltzaileak ondoren zehazten diren hobariak eskatu ahal izango dituzte horiek hasi baino lehen, berea duten familia-unitatearen diru-sarreraren arabera:

Ehuneko 75, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatarenak edo hortik beherakoak direnean

Ehuneko 50, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren eta gutxieneko soldata hori 1,2tik biderkatzearen ondoriozko emaitzaren artekoak direnean

Ehuneko 30, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata 1,2tik eta 1,4tik biderkatzearen ondoriozko emaitzen artekoak direnean.

Azken Xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2015eko urriaren 8an onartu zen behin betiko, 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

Eranskina**1. Udalaren kirol instalazioak**

1.1.a) Udalaren Palatu izeneko kirol instalazioen harpideduna (edo udalaren kirol instalazioak).

Hona kuotak:

- Zuiako udalerrian erroldaturiko pertsonentzako familia harpidetza: 60,85 euro.
- Zuiako udalerrian erroldaturiko pertsonentzako banakako harpidetza:

- 14 urtetik gorakoak: 24,35 euro.
- 14 urtetik beherakoak (urte horiek barne): 12,15 euro.
- Zuiako udalerrian erroldatu gabeko pertsonentzako familia harpidetza: 121,60 euro.
- Zuiako udalerrian erroldatu gabeko pertsonentzako banakako harpidetza:
 - 14 urtetik gorakoak: 48,70 euro.
 - 14 urtetik beherakoak (urte horiek barne): 24,35 euro.
- Galdu delako, desagertu delako, etab.engatik beste abonua bat egitea 3,10 euro.

Familia-abonua familiako kide guztiak barne hartu ahal izango ditu, familiako kideetat gurasoak eta 30 urte arteko diru-sarrerarik gabeko seme-alaba ezkongabeak hartuta.

65 urtetik gorakoei, erretiratuei eta ehuneko 65eko edo hortik gorako elbarritasuna dutenei kuotaren ehuneko 50 murriztuko zaie.

1.1.b) Palatu kiroldegiko harpidedun ez diren erabiltzaileak.

Udako denboraldian kiroldegi horretarako sarrera, egun osorako:

- a) 14 urtetik gorakoak: 5,50 euro.
- b) 14 urtekoek edo hortik beherakoek: 2,20 euro.

1.1.c) Palatu kiroldegiko harpidedun ez diren erabiltzaileak.

Udako denboraldian kiroldegi horretarako sarrera, 16: 00etatik aurrera:

- a) 14 urtetik gorakoak: 3,00 euro.
- b) 14 urtetik beherakoak: 1,20 euro.

Aurreko bi epigrafeek jasotako kuotak ordainduz gero, igerilekuak, aldagelak eta ordaindu behar ez diren beste zerbitzu guztiak erabili ahal izango dira.

1.2. Kirol-instalazioen erabilera

a) Jai Alai pilotalekua eta tenis-pista:

- abonatuak: 2,00 euro orduko
- ez abonatuak: 3,55 euro orduko

b) Palatuko pilotalekua, barruko zein kanpoko kirol-kantxak eta futbol-zelaia:

- abonatuak: 6,05 euro orduko
- ez abonatuak:

errolatuak: 9,55 euro orduko

ez erroldatuak: 12,15 euro orduko

Prezio publikoa argiagatik: 2,90 euro/ordu edo frakzioko.

Palatu pilotalekua 11: 00etatik 17: 00etara, astelehenetik ostiralera arte (jaiegunak salbu), erabiliz gero, ehuneko 50eko hobaria izando da harpidedunen kasuan eta, ehuneko 25ekoa, harpidetu gabekoen kasuan (hortik kanpo dago argiaren prezioa).

Harpidetu gisa hartuko dira guztiak, baldin eta gorako aipatutako kirol instalazioak (pilotalekua, kirol askotarako pista eta tenis pista) batera erabiltzean erabiltzaileen erdiak gutxienez harpidedunak badira.

1.3. Sauna.

– Harpidedunak:

Saioa (30 minutu): 5,80 euro

4 saioko bonua: 14,55 euro

– Harpidetu gabeak:

Erroldatuak:

Saioa (30 minutu): 5,50 euro

4 saioko bonua: 14,75 euro

Erroldatu gabekoak:

Saioa (30 minutu): 9,45 euro

4 saioko bonua: 29,15 euro

Bonuak hilabeterako balioko dute, gehienez ere, ematen diren egunetik aurrera. Epe hori pasatu ondoren, iraungita geratuko dira; beraz, indarrik gabe geratuko dira eta ezin izango dira erabili.

1.4. Giharketa aretoa

– Harpidedunak:

48,90 euro hiru hilean behin.

20,81 euro hilean.

– Harpidetu gabeak:

Erroldatuak:

73,15 euro hiru hilean behin.

30,20 euro hilean.

Erroldatu gabekoak:

97,70 euro hiru hilean behin.

41,62 euro hilean.

1.5. Kirol jarduerak ez direnetarako erabiltzea:

Kiroldegia kirol jarduerak ez direnetarako erabiltzeagatik: 1.382,15 euro egunean.

Udalerrarentzat bereziki interesgarriak diren hainbat jazoeratarako ehuneko 100era arteko salbuespena ezartzen da.

1.6. Boulder- Eskalada murrua.

	HARPIDEDUNA	HARPIDETU GABEAK:
Eguneko sarrera	1,15 euro	1,65 euro
Hiru hileko bonoa	11,00 euro	16,55 euro
Materiala alokatzea	1,15 euro	1,65 euro

Argiaren prezio publikoa: 2,50 euro orduko edo zatiki bakoitzeko.

Erabilera Arauak:

A) Ezaugarri Orokorrak:

Araudia. Udalaren kirol instalazioen arautegi orokorra eta ekipamendu horietarako ezarritako arau zehatzak aplikatuko dira.

Arduraduna/kontrola. Jarduera horren kontrola udalaren kirol instalazioak kudeatu, mantendu eta kontrolatzeko zerbitzuaren enpresa esleipendunen bidez gauzatuko da.

B) Erabiltzeko era:

Norbere kabuz: Arduradunari eskaladan behar bezala aritzen direla egiaztatzen dioten pertsonak beren kabuz erabili ahal izango dute Boulder eta eskalada murrua (kasuan kasuko kuota ordaindu eta gero). Erabilera bultzatzeko, hastapen ikastaroak emango dira.

Trebatuta ez dagoen erabiltzaileak Boulder izenekoa baino ezingo du erabili.

Boulder eta eskalada murrua polikiroldegiko bestelako kirolak egitea eragotzi barik erabiliko dira; esangura horretan, kantxa areto futboleko jolasteko alokatu bada, ezingo dira erabili boulder eta eskalada murrua.

Ikastaroak. Instalazioen kudeaketaren enpresa esleipendunak edo Zuiako Mendi Taldeak (kasu biotan udalarekin sinatu beharko dute hitzarmena) eman ahal izango dituzte eskaladarako hastapen ikastaroak.

C) Erabilera Tarifak:

Eguneko sarrera: Sarrera instalazioetako arduradunari ordainduko zaizkio eta gehienez bi orduz erabili ahal izango dira instalazioak; zenbatekoak kasuan kasuko atalean azaltzen dira.

Hiru hileko bonoa: zenbatekoak kasuan kasuko atalean azaltzen dira.

Argia erabiltzeagatiko prezioaren zenbatekoak kasuan kasuko tarifakoak izango dira.

Harpidedunak kasuan kasuko agiria aurkeztu beharko du, bestela harpidetzarik ez duenari dagozkion tarifak aplikatuko dira.

D) Materiala alogeran hartu eta mailegatzea:

Materiala alokatzeko zerbitzua dago, baina eskalada murruban baino ezin da erabili.

Mailegatutako materiala erabiltzeko tarifak kasuan kasuko atalean azaldutakoak dira.

“Gri-gri” berme gailua doan uztan da.

Utzitako materiala behar den moduan itzuli behar da jarduera amaitu eta gero.

E) Erabilerarako arau orokorrak:

– Boulder edo eskalada murrua erabiltzeko, instalazioaren arduradunarengana jo behar da; egoki jantzi beharko da eta eskaladan aritzeko ezinbesteko materiala ekarri. Boulder eta eskalada murruaren behealdean ezin da ezertxo ere utzi.

– Boulder eta eskalada murruban aritzeko, 14 urte izan behar da gutxienez. Adingabeek helduaren laguntza behar dute kirol horretan jarduteko.

– “Gri-gri” eta “zortziko” korapiloa erabili behar dira segurtasunerako.

– Debekatuta dago boulder eta eskalada murruaren elementuak (presak, sokak, koltxonetak) aldatzea, arduradunaren baimena eskatu barik.

– Jarrera edo eskalada ausartegiak galarazita daude.

– Ezin dira bi pertsona baino gehiago aldi berean egon boulder eta eskalada murruban.

— Udalaren kirol zinegotziak eta kirol instalazioetako arduradunek ebaluatuko dituzte hemen jasota ez dauden kasu eta egoerak.

1.7. Futbol zelaia:

Zelai erdi ordu erdi erabiltzea:

Abonatua: 5,20 euro.

Ez abonatua: 10,40 euro.

Argia:

2,10 euro, zelai erdia ordu erdi erabiltzeagatik.

4,15 euro, zelai osoa ordu erdi erabiltzeagatik.

2. Kirol Jarduerak:

2.1. Tenisa:

— 14 urtetik gorakoak:

Astean behin:

Abonatuak: 22,47 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 34,40 euro.

Erroldatu gabeak: 44,98 euro.

— Astean 2 egun:

Abonatuak: 44,94 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 68,80 euro.

Erroldatu gabeak: 89,96 euro.

— Astean 3 egun:

Abonatuak: 67,40 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 103,20 euro.

Erroldatu gabeak: 134,95 euro.

— 14 urtetik beherakoak:

— Astean behin:

Abonatuak: 17,83 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 27,18 euro.

Erroldatu gabeak: 35,62 euro.

— Astean 2 egun:

Abonatuak: 35,66 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 54,36 euro.

Erroldatu gabeak: 71,24 euro.

– Astean 3 egun:

Abonatuak: 53,50 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 81,55 euro.

Erroldatu gabeak: 106,85 euro.

2.2. Gimnastika. 60 urtetik gorakoak:

– Astean 2 egun:

Abonatuak: 2,50 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 4,35 euro.

Erroldatu gabeak: 5,10 euro.

– Astean 3 egun:

Abonatuak: 3,75 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 5,50 euro.

Erroldatu gabeak: 7,50 euro.

2.3. Igeriketa eta uretako jarduerak:

– Erroldatuak:

Abonatuak: 15,60 euro.

Abonatu gabeak: 20,80 euro.

Erroldatu gabeak:

Abonatuak: 20,80 euro.

Abonatu gabeak: 31,20 euro.

2.4. Gainerako kirol jarduerak:

– Helduak:

– Astean behin:

Abonatuak: 11,45 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 19,50 euro.

Erroldatu gabeak: 22,90 euro.

– Astean 2 egun: -

Abonatuak: 22,90 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 39,00 euro.

Erroldatu gabeak: 45,80 euro.

– Astean 3 egun:

Abonatuak: 28,70 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 48,70 euro.

Erroldatu gabeak: 57,55 euro.

– Haurrak:

– Astean behin:

Abonatuak: 6,45 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 10,92 euro.

Erroldatu gabeak: 12,95 euro.

– Astean 2 egun:

Abonatuak: 12,90 euro.

Abonatu gabeak:

Erroldatuak: 21,85 euro.

Erroldatu gabeak: 25,90 euro.

Hainbat kirol jardueraren ikastaroak hiru hilabetekoak izango dira (igeriketa eta ur jarduerak izan ezik, horien iraupena hilabetekoa izango baita gehienez), eta ezarritako prezioek iraupen hori dutela ulertu behar da.

3. Liburutegia:

– Inprimagailua erabiltzea: 0,10 euro orri bakoitzeko.

4. Udalekuak:

– Erroldatuak: 54,20 euro.

– Erroldatu gabekoak: 108,40 euro.

Plaza kopurua mugatua izanez gero, erroldaturikoak lehentasuna izango dute erroldaturik ez daudenen aldean.